



## **BIDE PUBLIKOA TERRAZA ETA MAHAITOKIEKIN EDOTA JARDUERA KOMERTZIALARI LOTUTAKO BESTELAKO ELEMENTUEKIN OKUPATU ETA ERABILTZEKO UDAL ORDENANTZA**

Biztanleen erabilera eta ohiturak denborarekin aldatu egiten direnez, herriko merkataritza, turismo eta ostalaritzako sektoreak ere, bere aldetik, etengabe egokitu behar izaten ditu bere zerbitzuak, kalitatezko arreta eskaintzeko.

Orioko Udalak etengabe aldatzen ari den testuinguru batera egokitu behar du, eta ordenantzak, erregulazioak eta araudiak ezin dira errealitate horretatik kanpo geratu. Udalak, zentzu horretan, bere arategi osoa moldatu behar du, hobekuntzak eginez zeharkako errealitate dinamiko horretara egokitzeko.

Ordenantza hau, beraz, Orioko nortasun-ikurrak eta erakargarritasuna mantentzeko estrategia orokor baten barruan kokatu behar da. Helburu hori lortzeko, ordenantzak berdin zaintzen ditu gune publikoaren paisaia eta baita irisgarritasuna ere, irizpide argi hauekin: harmonizazioa, antolamendua, eta ostalaritzaren eta merkataritzaren arloan kalitatezko zerbitzuak sustatzea.

Turismoak ostalaritza sektorean duen pisua nabaria da, herritarrez gain, Oriora etortzen diren bisitariak ere establezimendu publiko horien erabiltzaile baitira. Ordenantza honi ere eragiten dio udalerraren izaera turistikoak, herriko taberna eta jatetxeen erakargarritasunerako puntu garrantzitsua baitira terrazak. Oriok turismoa garatzeko plan estrategikoa landu du, sektore horrek udalerraren ekonomian pisu handiagoa izan dezan, betiere modu orekatu eta

## **ORDENANZA MUNICIPAL SOBRE EL USO Y LA OCUPACIÓN DE LA VÍA PÚBLICA CON TERRAZA, VELADORES Y OTROS ELEMENTOS VINCULADOS A ACTIVIDADES COMERCIALES**

*Los usos y costumbres de la población van evolucionando, y al mismo tiempo, el sector comercial, turístico y hostelero del pueblo adapta constantemente sus servicios para ofrecer una atención de calidad.*

*El Ayuntamiento de Orio debe adaptarse a un contexto en constante cambio, y las ordenanzas, regulaciones y reglamentos no pueden quedar al margen de esta realidad. El Ayuntamiento, en este sentido, debe adaptar toda su normativa para adaptarla a esta realidad dinámica transversal mediante mejoras.*

*La presente Ordenanza, por tanto, debe enmarcarse en una estrategia global destinada a mantener las señas de identidad de Orio, como pueblo y su atractivo para los visitantes, cuidando de igual manera la accesibilidad y el valor paisajístico del espacio público, con unos criterios claros basados en la armonización, la ordenación, y el impulso de servicios hosteleros y comerciales de calidad.*

*El peso del turismo en el sector hostelero es evidente, ya que además de los ciudadanos, los visitantes que llegan a Orio también son usuarios de estos establecimientos públicos. Esta ordenanza también se ve afectada por el carácter turístico del municipio, ya que las terrazas son un punto importante para el atractivo de los bares y restaurantes del municipio. Orio ha elaborado un plan estratégico de desarrollo turístico que permite a este sector tener un mayor peso en la*



jasangarrian, eta herriaren nortasuna eskaintzaren erdigunean jarritz.

Hori horrela, Orioko Biziberritze Planarekin bat, ordenantza honen bidez, udalerriko nortasun ikur garrantzitsu bat babestearen alde egiten du ordenantza honek: parrillak. Gastronomía delako Orioren turismo arloko ardatzetako bat, herriaren nortasuna eta itsasoarekiko lotura bistaratzen duen elementua.

Ordenantza honen bidez, bestalde, herriko nortasun linguistikoari ere balioa eman nahi dio Udalak. Orioko Biziberritze Planak jasotzen du herri euskaldunaren izaera indartu eta proiektatu behar duela Udalak eta hori ere kontuan hartzeko elementu bat da, merkataritza eta ostalaritza alorreko establezimenduek bereziki zaindu behar dutena. Horretarako tresna ere bada ordenantza hau.

Bisitaldi askoren arrazoi nagusia da ondare immateriala, nortasun-ikurretan islatzen dena, eta ezinbestekoa da alojamentuetan, ostalaritzan eta merkataritzan ere nortasun-ikur horiek zaindu eta elikatzea.

Hori guztia kontuan hartuta, ordenantza honek parrillak dituzten erretegiak jarduera berezi izendatzen ditu, udalerriko jarduera ekonomikoaren suspertzaile kontsideratzen dituelako.

## **I. KAPITULUA: XEDEA, EREMUA ETA MUGA OROKORRAK.**

### **1. ARTIKULUA. XEDEA.**

*economía del municipio, siempre de forma equilibrada y sostenible, poniendo la identidad del municipio en el centro de la oferta.*

*En este sentido, de acuerdo con el Plan de Revitalización de Orio, la presente Ordenanza apuesta por la protección de un importante signo de identidad municipal: las parrillas. La gastronomía es uno de los ejes turísticos de Orio, un elemento que muestra la identidad del pueblo y su relación con el mar.*

*Por otro lado, con esta ordenanza, el Ayuntamiento pretende poner en valor la identidad lingüística del municipio. El Plan de Revitalización de Orio contempla que el Ayuntamiento debe reforzar y proyectar el carácter de pueblo euskaldún de Orio, lo que constituye un elemento a tener en cuenta por los establecimientos comerciales y hosteleros. Esta ordenanza es también un instrumento para ello.*

*El principal motivo de muchas visitas es el patrimonio inmaterial, que se refleja en los signos de identidad, y es imprescindible conservar y alimentar estos signos de identidad en los alojamientos, la hostelería y el comercio.*

*Teniendo en cuenta todo ello, la presente ordenanza califica como actividad especial los asadores con parrillas, ya que los considera dinamizadores de la actividad económica del municipio.*

## **CAPITULO I OBJETO, ÁMBITO Y LIMITACIONES GENERALES.**

### **ARTÍCULO 1. OBJETO.**



1.- Ordenantza honen xedea hau da: arautzea bide publikoaren okupazioa eta erabilera terraza eta mahai-tokiekin edota ostalaritza jardueraren osagarri diren bestelako elementuekin (barririk, mahai altuak...). Arautzen du, baita ere, jarduera komertzialari lotutako bestelako elementuen instalazioa bide publikoan.

Orioko turismoari lotuta, parrilla duten jatetxeak jarduera berezi moduan hartuko dira.

2.- Bide publikoaren okupazio eta aprobetxamendu horien kategoria juridikoa «erabilera komun berezia» da eta, lortu ahal izateko, kasu bakoitzean, aurrez udal-lizentzia eskatu eta Ordenantza honetan aurreikusitakoaren arabera emango da; dena dela, horrek ez du esan nahi bere kokapenagatik beste baimen batzuk ere beharko ez dituenik.

Aurreko atalaren ondorioetarako, honako elementuekin osatutako multzoak hartuko dira terraza eta mahai-tokitzat: mahaiak, aulkiak, eta ostalaritza-establezimendu baten jarduerarako lagungarriak diren beste zenbait altzari mugikor eta desmuntagarriak (eguzkitakoak, estalkiak, plataformak, kanpoko berogailuak, informazio-panelak, jardinerak eta antzeko elementuak) eta ostalaritza-establezimenduen instalazio osagarriak (toldoak, egitura erdi-finkoak, eta alboetako babesak).

## 2. ARTIKULUA. EREMUA.

1.- Ordenantza honek erabilera publikoko espazio guztietarako balio du (kaleak, plazak, barruko patioak, espazio libreak, pasabideak

*1. Es objeto de la presente Ordenanza la regulación de las ocupaciones y usos de la vía pública mediante su ocupación temporal o permanente con terrazas y veladores o instalaciones análogas con barricas y mesas altas que constituyan complemento de la actividad de hostelería. También se regula la instalación de otros elementos en la vía pública, vinculados a actividades comerciales.*

*En relación al turismo de Orio, los restaurantes con parrilla se considerarán actividades especiales.*

*2.- La categoría jurídica de las ocupaciones y aprovechamientos de la vía pública es la de «uso común especial», que se otorgará, previa solicitud de la correspondiente licencia municipal, de acuerdo con lo previsto en la presente Ordenanza, sin perjuicio de que por su ubicación precise de otras autorizaciones.*

*A los efectos del apartado anterior, se entiende por terrazas y veladores el conjunto de mesas y asientos y cualesquiera otros elementos de mobiliario, móviles y desmontables, como sombrillas, cubriciones, plataformas, calefactores de exteriores, paneles anunciadores, jardineras o elementos análogos y de sus instalaciones complementarias, tales como toldos, estructuras semifijas y protecciones laterales que permitan el desarrollo de la actividad de forma accesoria a un establecimiento de hostelería.*

## **ARTÍCULO 2. ÁMBITO.**

*1. La presente Ordenanza es aplicable a todos los espacios (calles, plazas, patios interiores, espacios libres, pasadizos, etc.) de uso público,*



etab.), horien titulartasuna edozein izanda ere. Erabilera publiko izaera erabakitzeke, hauek hartuko dira kontuan: izatezko egoera bera eta indarrean dagoen plangintza.

2.- Aurreko artikuluan ezarritakoa gorabehera, ez zaie araudi hau aplikatuko Udalaren administrazio-kontzesio baten babesean egiten diren jarduera nagusien instalazio osagarriei, edota noizbehinkako ospakizunetan eta herriko jai-ekitaldietan, dagokion udal-agintaritzak ezarritako egutegi eta baldintzapean egiten diren jardueretan ezartzen direnei. Kasu horietan, kontzesioaren baldintza-orrietan bertan jasoko dira terrazaren baldintzak.

3.- Itsas-lehorreko jabari publikoaren zonan edo bide-zortasuneko eremuan terrazak edo mahai-tokiak jarri behar badira, aurrez hori egiteko gaitzen duen titulua eskatu beharko da Itsasertzetako Gipuzkoako Zerbitzu Probintzian. Babes-zortasuneko eremuan kokatutako instalazioek aurrez Uraren Euskal Agentziaren baimena beharko dute.

### 3. ARTIKULUA. MUGA OROKORRAK.

Okupazio-lizentzia daukan azalera zehatza mugatzeko garaian, kontuan hartu beharko dira bertatik pasatzeko beharrak zenbaterainokoak diren eta mahai eta aulkiak zein tokitan jartzen diren eta, hortaz, denbora guztian gutxieneko espazio bat utzi beharko da oinezkoak pasa daitezen, ondoko arauen arabera:

1.- Debekatuta dago terraza eta mahai-tokiak jartzea bi metro eta laurogeita hamar zentimetrotik (2,90 m) beherako zabalera duten espaloi eta oinezkoentzako

*con independencia de su titularidad. La condición de uso público vendrá determinada tanto por la situación de hecho, como por el planeamiento vigente.*

*2. No obstante lo dispuesto en el artículo anterior, esta normativa no será aplicable a las instalaciones complementarias de actividades principales desarrolladas al amparo de una concesión administrativa municipal o de las ejercidas con motivo de celebraciones ocasionales y de actos festivos populares, con sujeción al calendario y requisitos establecidos por la Autoridad Municipal competente. En dichos casos, las condiciones de la terraza se recogerán en los pliegos de la concesión.*

*3. Igualmente, en el caso de instalar terrazas o veladores en la zona de dominio público marítimo-terrestre o zona de servidumbre de tránsito, deberá solicitarse previamente título habilitante ante el Servicio Provincial de Costas en Gipuzkoa. Las instalaciones ubicadas en zona de servidumbre de protección deberán contar con previa autorización de la Agencia Vasca del Agua.*

### ARTÍCULO 3. LIMITACIONES GENERALES.

*Al delimitarse la superficie concreta a ocupar para la que se conceda licencia, deberán tenerse en cuenta las necesidades de tránsito y el lugar donde se coloquen las mesas y sillas, debiendo en todo momento realizarse de modo que quede libre un espacio mínimo para el paso de los peatones, de acuerdo con las siguientes reglas:*

*1.- Queda prohibida la instalación de terrazas y veladores en aceras o espacios peatonales que tengan una anchura inferior a dos metros y noventa centímetros (2,90 m).*



espazioetan.

Terraza jarri ahal izango da bai espaloian eta baita portxean ere, betiere 2 metro zabaleko oinezkoen pasaera bermatzen bada.

Hala eta guztiz ere, eta kasu hauetan salbuespen modura, baimena eman ahal izango da establezimenduaren pareko aparkalekua okupatzeko —baldin eta halakorik balego—, eta baita oinezkoen pasabidea oztopatzen duten hiri-altzarien, oztopo arkitektonikoen eta zuhaitzen arteko espaloi-zatiak erabiltzeko ere. Horrelakoetan, terrazako mahai eta aulkiak geratzen den espaziora moldatu beharko dira, eta betiere, oinezkoentzat dagoen oztoporik gabeko pasabidea murriztu gabe.

Halaber, salbuespenezko zenbait kasutan, eskabidean azaldu eta argudiatutako zirkunstantziak banan-banan aztertuko ditu Udalak, eta ohiz kanpo eta arrazoituta, dagokion lizentzia eman ahal izango du.

2.- Horrez gain, terraza eta mahai-tokiak jartzea debekatu ahal izango da bide-segurtasunagatik, obra publikoengatik edo Udalaren iritziz jendearen interesekoak izan daitezkeen antzeko beste arrazoi batzuegatik.

3.- Luzetara jartzeko garaian, instalazioak —Udalak onartutako alboko babesak barne— gehienez ere okupa dezakeen tokia bat etorriko da establezimenduaren fatxadaren luzerarekin. Salbuespen moduan, ondoko lokalaren aurrean terraza luzatzea onartu ahal izango da baldin eta hango jabeak idatzizko baimena ematen badu eta Udalak onartzen badu. Zeharka zenbat okupa

*Se permitirá la instalación de terraza tanto en la acera como en un porche, siempre que se garantice un paso de peatones de 2 metros de ancho.*

*No obstante, excepcionalmente en estos casos, se podrá autorizar la ocupación, si existiese, de la zona de aparcamiento situada en frente del establecimiento y la utilización de los espacios de aceras existentes entre el mobiliario urbano, barreras arquitectónicas o árboles que dificulten el paso habitual del peatón, adecuando el mobiliario del velador al espacio resultante y sin menoscabar el paso peatonal libre de obstáculos existente.*

*Así mismo, en casos excepcionales, el Ayuntamiento estudiará de forma individual las circunstancias que concurran y se argumenten en la solicitud, pudiendo de forma extraordinaria y motivada conceder la oportuna licencia.*

*2.- Podrá asimismo prohibirse la instalación de terrazas y veladores por razones de seguridad viaria, obras públicas u otras circunstancias similares, que a criterio del Ayuntamiento sean de interés público.*

*3.- El desarrollo longitudinal máximo de la instalación, incluidas las protecciones laterales aceptadas por el Ayuntamiento, será acorde al desarrollo de la fachada del establecimiento. Excepcionalmente se podrá autorizar la ampliación de la terraza delante del local contiguo siempre que el propietario del local lo autorice por escrito y el Ayuntamiento así lo apruebe. El desarrollo transversal susceptible*



daitekeen zehazteko, erabilera publikoaren aldetik espazio horrek nolako ezaugarriak dituen hartuko da kontuan, espazio horren jatorrizko funtzioa bermatuz.

4.- Gerta liteke proiektatutako instalazioaren okupazioa mugatu eta lokalaren fatxadaren aurrealdea baino neurri txikiagoa izatera behartzea, fatxada horretatik gertu ezkaratzak, larrialdi-irteerak eta horrelakoak dauden kasuetan. Inguruko eraikinetako sarrera eta irteerak inongo momentutan oztopatu edo zaildu gabe jarri beharko dira terraza edo mahai-tokia osatzen duten elementuak, guzti-guztiak baimendutako azaleraren barruan kokatuta. Eguzkitakoen kasuan, bai hegala bai oina terrazaren azaleraren barruan geratuko dira.

5.- Debekatuta dago lorategietan terrazarik jartzea.

6.- Debekatuta dago, terrazaren lagungarri modura, inolako kiosko, barra edo instalaziorik jartzea eta, hortaz, establezimenduaren barrutik emango zaie zerbitzua mahaiei. Aparteko kasuetan baimen berezia eman ahal izango da.

Baimena eman ahal izango da leiho batetik zerbitzatzeko, baldin-eta oinezkoen pasaera oztopatzen ez bada eta espaloiak, gutxienez, 1,50 m-ko zabalera badu.

7.- Beti garbi mantendu beharko da. Garbiketa okupazioaren lizentziaren titularraren ardura izango da. Lizentziaren titularrak garbitzen ez duelako udal-zerbitzuek garbitu behar badute, horren kostua likidatuko zaio titularrari, horretarako aurreikusita dauden exekuzio subsidiarioko bideak erabiliz.

*de ocupación se efectuará en función de las peculiaridades del espacio de uso público, garantizando la función original del mismo.*

*4.- La ocupación de la instalación proyectada podrá ser limitada a una medida inferior a la del frente de fachada del local, en los casos en que existan portales, salidas de emergencia, etc. en las cercanías de dicha fachada. Los elementos de los cuales se compone la terraza o velador se colocarán de manera que no impidan o dificulten en ningún momento el libre acceso a las fincas colindantes, debiendo quedar todos los elementos dentro de la superficie autorizada. En el caso de sombrillas tanto el vuelo como el pie quedarán dentro de la superficie que ocupe la terraza.*

*5.- Queda prohibida la instalación de terrazas en zonas ajardinadas.*

*6.- Queda prohibida la instalación de cualquier tipo de quiosco, barra o instalación de apoyo para dar servicio a la terraza, debiéndose servir las mesas desde el interior del establecimiento, salvo autorización especial en situación excepcional.*

*Se podrá autorizar dar servicio a los clientes a través de una ventana, siempre y cuando no se obstaculice el tránsito peatonal y la acera tenga una anchura mínima de 1,50 m.*

*7.- Deberá mantenerse en permanente estado de limpieza, correspondiendo al titular de la licencia la limpieza de la superficie ocupada. La limpieza que deba efectuar el Servicio Municipal, como consecuencia del incumplimiento de la obligación de realizarla por el titular de la licencia o autorización, se liquidará por el procedimiento previsto para las ejecuciones subsidiarias.*



## II. KAPITULUA: INSTALAZIORAKO BALDINTZAK

### 4. ARTIKULUA. OKUPAZIOA.

Instalazioak denbora guztian bermatu beharko du oinezkoak inongo oztoporik gabe pasatu ahalko direla, indarrean dagoen 20/1997 Legea eta lege hori garatzeko arau teknikoak betez.

Orokorrean, oztoporik gabeko gutxieneko igarotze-zabalera 2,00 m-koa izango da.

Aurreko atalean ezarritakoa gorabehera, oinezkoentzat libre utzi beharreko gutxieneko bidea handitu ahal izango da, Udalak iritzitako oinezkoen joan-etorri handiak hala eskatzen badu.

Orokorrean, terrazak establezimenduaren fatxadaren kontra jarriko dira, okupazioaren gehieneko azaleraren barruan. Gehieneko azalera hori zehazteko, kontuan hartuko da: espaloiarene zabalera, oinezkoen pasaera eta irisgarritasuna bermatzea eta espazio horien kalitate urbanoa.

Itsas-lehorreko jabari publikoan jar daitezkeen instalazioen dimentsioek kostako gaietan indarrean dagoen araudiko maximoak errespetatuko dituzte.

Ordenantza honetako 3. artikuluan jasotako mugei kalterik egin gabe, terrazek eta mahaitokiek ondorengo baldintzak beteko dituzte:

a) Ibilgailu-zirkulazioa duten kaleetan.

## CAPITULO II CONDICIONES DE INSTALACION

### ARTÍCULO 4. OCUPACIÓN.

*La instalación deberá garantizar en todo momento el libre tránsito de peatones, de acuerdo con la vigente Ley 20/1997 y las normas técnicas de desarrollo de la misma.*

*Con carácter general, la anchura mínima de paso libre de obstáculos será de 2,00 m.*

*No obstante lo establecido en el apartado anterior, se podrá ampliar el vial mínimo de paso libre de peatones cuando así lo requiera, por su volumen, el tránsito de peatones; todo ello siempre a consideración del Ayuntamiento.*

*Con carácter general, las terrazas se dispondrán contra la fachada del establecimiento, dentro de la superficie máxima de ocupación. Para la determinación de esta superficie máxima se tendrá en cuenta la anchura de la acera, el paso de peatones y la accesibilidad y la calidad urbana de estos espacios.*

*Las dimensiones de las instalaciones que puedan situarse en el dominio público marítimo-terrestre respetarán los máximos de la normativa vigente en materia de costas.*

*Sin perjuicio de las limitaciones contenidas en el artículo 3 de esta Ordenanza, las terrazas y veladores cumplirán las siguientes condiciones:*

*a) En las calles con circulación rodada:*



— Bidearen eta espaloia-aren artean aparkalekua dagoenean, baimena ematen baldin bada aparkalekuak eta espaloiak bat egiten duten tokia okupatzeko, mahai eta aulkiak espaloia-aren ertzean, luzetara, eta gutxienez metro bateko (1,00m) tarte utzita jarriko dira, aparkatutako ibilgailuetako bidaiarien sartu-irtenak ez oztopatzeko. Kasu horietan, aparkalekuen antolamenduaren arabera, luzetara egiten den okupazioa mugatu edo tarte hori handitu ahal izango da.

— Bidearen eta espaloia-aren artean ez baldin bada ez aparkalekurik ez eta babes-hesirik ere, bide-motaren arabera, tarte bat utzi beharko da bideraino segurtasuna bermatzeko.

## b) Oinezkoen kaleetan.

— Terraza edo mahai-tokiak establezimenduaren fatxadaren ondoan jarri beharko dira, pertsonen joan-etorrirako bidea oinezkoentzako espazioaren erdialdean gera dadin; bidea, gutxienez, 3,50 m zabalekoa izango da. Salbuespen modura, fatxadatik bananduta jartzea baimendu ahal izango da, baina betiere, gutxienez honako zabalera libreak utzita oinezkoentzako pasabidean: 2,00 m okupazioaren alde banatan, hau da, gutxienez 2,00 metroko zabalera librea establezimenduraino, eta beste 2,00 metro parean dagoen eraikineraino.

— Alde zahar-ean, oinezkoen eremuan, terraza propioaz gain, barrikak edo mahai altuak ere instalatu ahal izango dira fatxadaren kontra, betiere Udalak baimentzen bada.

— *Cuando existe zona de aparcamiento entre la acera y el vial, si la ocupación se autoriza en la zona límite de la acera con el aparcamiento, se deberán disponer longitudinalmente al borde de la acera, separadas del mismo un mínimo de un metro (1,00m), para no entorpecer la entrada y salida de los pasajeros de los vehículos estacionados. En estos casos, podrá limitarse el desarrollo longitudinal de la ocupación en función de la disposición de las plazas de aparcamiento existentes o ampliarse dicha separación.*

— *Si no existe aparcamiento entre la acera y el vial ni valla protectora, deberá garantizarse una distancia al vial que permita la seguridad en función del tipo de vía.*

## b) En las calles peatonales.

— *Las terrazas o veladores deberán situarse junto a la fachada del establecimiento de modo que el tránsito de personas quede en la zona central del espacio peatonal, que será como mínimo de 3,50 m de anchura. Excepcionalmente se podrá autorizar su ubicación separada de la fachada, con las siguientes anchuras mínimas en el paso de peatones: 2,00 m a cada lado de la ocupación, es decir, 2,00 m de anchura libre mínima hasta el establecimiento y 2,00 m a la altura del edificio existente.*

— *En la parte vieja, en zona peatonal, se podrán instalar, además de la terraza propia, barricas o mesas altas contra la fachada, siempre contando con la preceptiva autorización del Ayuntamiento.*





— Baimendutako terraza edo mahai-tokia luzetara gehienez ere noraino jarri agindu ahalko du Udalak, hartara, oinezkoek sigi-saga ibili beharrik izan ez dezaten.

— Terraza edo mahai-tokia jartzeko udal-lizentzia bata bestearen parean dauden ostalaritzako bi establezimenduk eskatzen badute, egoera aztertu ondoren eta dagozkion neurrien arabera, Udalak erabakiko du tokia nola banatu.

— Bezeroen irisgarritasuna bermatze aldera, alde zaharreko eremuan janaria ematen duten establezimenduek baimena jaso dezakete mahai baxuak fatxadaren kontra instalatzeko; betiere oinezkoen ibilbidea oztopatzen ez bada eta alde zurratik Udalak baimentzen badu.

### c) Plaza eta gune libreetako instalazioak.

— Espazio hauetan bide publikoa okupatzeko lizentzia eman ahal izango zaie, soilik ostalaritzako jardueraren titularrei, lokalaren aurrealdeak espazio horietara ematen badu.

Plaza eta gune libreetan mahai-tokiak eta terrazak jartzeko eskaerak kasuan kasuko berezitasunen arabera erabakiko dira. Nolanahi ere, kontuan izan beharko dira zehaztutako orokor hauek:

- Lorategiez hornitutako eremuak, jolas-esparruak eta atsedenlekuak errespetatuko dira.
- Ez da oinezkoen pasabidearen arintasuna oztopatuko.

— *El Ayuntamiento podrá ordenar el establecimiento de una terraza o velador autorizado a una altura máxima longitudinal, de forma que los peatones no tengan que circular en zigzag.*

— *Cuando la licencia municipal para la instalación de una terraza o velador sea solicitada por dos establecimientos de hostelería situados uno frente al otro, una vez analizada la situación y en función de las medidas oportunas, el Ayuntamiento decidirá la distribución del espacio.*

— *En aras de garantizar la accesibilidad a los clientes, los establecimientos de la parte vieja que sirvan comidas podrán obtener licencia para instalar mesas bajas junto a la fachada, siempre que no se obstruya el paso de peatones y el Ayuntamiento lo autorice previamente.*

### c) Instalaciones en plazas y espacios libres.

— *La licencia de ocupación de vía pública en estos espacios se podrá autorizar exclusivamente a los titulares de la actividad de hostelería, cuando la fachada del local dé a dichos espacios.*

*Las solicitudes para la instalación de veladores y terrazas en plazas y espacios libres se resolverán en función de las particularidades de cada caso. De todas maneras, deberán tenerse en cuenta las siguientes consideraciones generales:*

- *Se respetarán las zonas ajardinadas, áreas recreativas y áreas de descanso.*
- *No se obstaculizará la facilidad del paso de peatones.*



- Fatxaden lerrokadura bakoitzean gutxienez bi (2) metroko zabalera duen pasabidea utzi beharko da oinezkoen etengabeko joan-etorria, inongo oztoporik gabe, bermatzeko. Bestela, erdiko pasabide bat utzi beharko da, bertan dauden hiri-altzariak kontuan izanda.
- Okupatu daitekeen tokiaren banaketa plaza eta espazio libreen azalera eta ezaugarrien arabera egingo da, kontuan izanik, batetik, toki horien erabilera, eta, bestetik, zenbat establezimendu diren okupazio-eskaera egin dezaketanak.
- Ere mu bera erabiltzeko eskabide bat baino gehiago badaude, establezimendu ezberdinek hartuko duten azalera egoera orokorrean aztertuko da eta proportzioaren arabera banatuko, hau da, establezimendu horiek publikorako esleituta duten eremuaren arabera. Kokapenaren proposamena Udalak egingo du.
- Desnibela dagoen kaleetan aukera izango da zurezko plataformak jartzeko, nibelean. Plataforma horiek desmuntagarriak izango dira eta, gehienez, baimendutako terraza-azalera okupatuko dute.

#### d) Aparkalekuen galtzadako instalazioak.

Bi metro eta laurogeita hamar zentimetrotik (2,90 m) beherako espaloiak dituzten kaleetako ostalaritza-establezimenduek baimena eskatu ahalko dute, galtzadan,

- *En cada alineación de fachada deberá dejarse un paso de anchura mínima de dos (2) metros para garantizar el tránsito permanente de peatones sin obstáculos. En caso contrario, se deberá dejar un paso central teniendo en cuenta el mobiliario urbano existente.*
- *La distribución del espacio ocupable se realizará en función de la superficie y características de las plazas y espacios libres, teniendo en cuenta, por un lado, el uso de los mismos, y, por otro, el número de establecimientos que pueden solicitar la ocupación.*
- *En caso de existir más de una solicitud de uso de la misma zona, la superficie ocupada por los distintos establecimientos se analizará según su situación general y se distribuirá proporcionalmente, es decir, en función del espacio público que dichos establecimientos tengan asignado. La propuesta de ubicación la realizará el Ayuntamiento.*
- *En las calles en las que haya desnivel se podrán colocar plataformas de madera a nivel. Estas plataformas serán desmontables y ocuparán como máximo la superficie de terraza autorizada.*

#### d) Instalaciones en calzadas de aparcamientos.

*Los establecimientos hosteleros de las calles con aceras inferiores a dos metros noventa centímetros (2,90 m) podrán solicitar autorización para la colocación de un velador*



ondoko aparkaleku baten gainean, mahai-tokia jarri ahal izateko.

Instalazio horiek derrigorrez jarri beharko dira atxikitako oholtza baten gainean, eta espaloia-aren altuera berean.

Okupazioaren luzera, gutxi gorabehera, establezimenduaren fatxadarena izango da, parean mugatuta dauden aparkalekuekin bat eginez. Okupazioaren zeharkako luzera eta aparkalekuarena berdin-berdinak izango dira. Oholtza espaloia-aren ertzean, luzetara, jarri beharko da, galtzadaren ertzetik gertuen dauden tokietaraino eta aldameneko aparkalekuetaraino gutxienez 30 cm-ko distantzia utziz.

Terrazako sarrera espaloitik egin behar da derrigorrez.

Kontuan izanda Udalaren titulartasuna ez duten errepideen izaera, ezingo da horrelako terraza edo mahai-tokirik jarri errepide horietan.

## **5. ARTIKULUA. TERRAZA EDO MAHAI-TOKIEN INSTALAZIO OSAGARRIAK.**

Artikulu honen ondorioetarako, hauek izango dira terraza edo mahai-tokien instalazio osagarriak:

- 1.- Terraza edo mahai-tokiari lotutako toldoak.
- 2.- Alboko babesak.
- 3.- Egitura erdi-finkoak.
  - Fatxadari lotutakoak.
  - Fatxadari lotu gabeko egitura

*en la calzada sobre un aparcamiento cercano.*

*Estas instalaciones deberán situarse obligatoriamente sobre un tablado adosado y a la misma altura de la acera.*

*La longitud aproximada de la ocupación será la de la fachada del establecimiento, coincidiendo con los aparcamientos delimitados a su altura. La longitud transversal de la ocupación será idéntica a la del aparcamiento. El tablado deberá situarse en el borde de la acera, longitudinalmente, dejando una distancia mínima de 30 cm desde el borde de la calzada hasta los lugares más próximos y a los aparcamientos colindantes.*

*El acceso a la terraza se realizará obligatoriamente desde la acera.*

*Teniendo en cuenta la naturaleza de las carreteras que no sean de titularidad municipal, no se permitirá la instalación de este tipo de terrazas o veladores en dichas carreteras.*

## **ARTÍCULO 5. INSTALACIONES COMPLEMENTARIAS A LAS TERRAZAS O VELADORES.**

*A efectos del presente artículo se entenderá por instalaciones complementarias a la terraza o velador las siguientes:*

- 1.- Toldos ligados a la terraza o velador.
- 2.- Protecciones laterales.
- 3.- Estructuras semi-fijas.
  - Adosadas a la fachada.
  - Estructuras autoportantes no adosadas



<p>autosostengatzaileak.</p> <p>4.- Plataformak.</p> <p>5.- Barririkak eta mahai altuak.</p> <p>6.- Berogailuak.</p> <p>7.- Telebista eta musika-aparatuak.</p> <p><b>1.- Terraza edo mahai-tokiari lotutako toldoak.</b></p> <p>Oihal edo olanaz egindako estalkia, fatxadari lotua, baimendutako okupazio-azaleraren gainean zabaltzen da itzal egiteko, eta jasotzeko sistema du. Baldintza hauek bete beharko dituzte:</p> <p>a) Orokorrean, gehienezko zabalera establezimenduaren fatxadaren zabalera izango da, eta gehienezko hegala, berriz, bat etorriko da baimendutako okupazioaren zeharkako garapenarekin.</p> <p>b) Gehienezko altuera bat etorriko da beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin. Toldoak zabaldu eta jasotzeko elementuak eta horien euskarriak dira baxuago jarri ahalko diren elementu bakarrak, eta fatxadaren lerrokaturretatik kanpo gehienez ere 0,20 metro aterata.</p> <p>c) Alboak ezingo dira toldo edo zintzilikatutako beste elementu batzuekin itxi. Terraza edo mahai-tokiaren alboak babesteko, artikulua honen 2. atalean alboko babesei buruz ezarritakoa bete beharko da.</p> <p>d) Terraza edo mahai-tokiak bide publikoa okupatzen badu, toldoak gutxienezko altuera 2,20 metrokoa izango du edozein puntutan.</p>	<p><i>a la fachada.</i></p> <p><i>4.- Plataformas</i></p> <p><i>5.- Barricas y mesas altas.</i></p> <p><i>6.- Calefacciones.</i></p> <p><i>7.- Televisiones y aparatos musicales.</i></p> <p><b><i>1.- Toldos ligados a la terraza o velador.</i></b></p> <p><i>Cubierta de tela o lona, que se tiende sobre la superficie de ocupación autorizada, adosada a fachada, para hacer sombra y que dispone de un sistema para ser recogida. Deberán cumplir:</i></p> <p><i>a) Con carácter general, la longitud máxima será la anchura de la fachada del establecimiento y el vuelo máximo se corresponderá con el desarrollo transversal de la ocupación autorizada.</i></p> <p><i>b) La altura máxima será la de la cara inferior del forjado de techo de la planta baja. Sólo podrán situarse a menor altura y con un saliente máximo de 0,20 m desde la línea de fachada, los soportes y demás elementos previstos para extender y plegar los toldos.</i></p> <p><i>c) No se permite el cierre de los laterales mediante toldos ni otros materiales colgados. Para protección lateral de la terraza o velador se estará a lo dispuesto en el apartado 2 del presente artículo sobre protecciones laterales.</i></p> <p><i>d) Si se utiliza cuando la terraza o velador esté ocupando la vía pública, la altura mínima será de 2,20 m en cualquier punto.</i></p>
---	--



e) Terraza jarrita ez dagoenean, establezimenduaren barnean itzala lortzeko erabili ahal izango dira toldoak.

f) Portxe baten barruan dauden establezimenduek, terraza portxetik kanpo baldin badaukate, aukera izango dute terraza hori estaltzeko toldoa instalatzeko, betiere auzokoen baimena lortuz gero.

## 2.- Alboetako babesak.

Terraza edo mahai-tokiak jarritakoan okupatzen diren azalerak alboetako babesen bidez mugatu ahalko dira, barrutia markatuta geratuz, eta baldintza hauek beteko dituzte:

a) Alboetako babesak inguruaren ezaugarriekiko aproposak izango dira beti, eta Udalak ontzat eman beharko ditu, dagokion batzordean banan-banan aztertu eta gero.

b) Itsuek erraz identifikatzeko modukoak izango dira.

c) Ezingo dute baimendutako azalera gainditu.

d) Mugikorrek izango dira, desmuntatzen errazak, eta terrazaren funtzionamendu-ordutegitik kanpo jaso egingo dira. Bide publikoan lurrari erantsi behar izanez gero, horretarako udal baimena beharko dute. Dena dela, horrela egin behar izanez gero, tresneria kentzean lurreko loturak ezin izango dira lurraren paretik gora atera. Bide publikoan edo inguruko elementu urbanoetan kalterik sorten bada, kalte horiek osorik ordaintzeko eskatuko dio udal-administrazioak.

*e) Cuando la terraza no esté montada, los toldos podrán utilizarse para conseguir sombra en el interior del establecimiento.*

*f) Los establecimientos situados en el interior de un porche tendrán opción, si su terraza está fuera del porche, de instalar un toldo para cubrir la terraza, siempre que dispongan del permiso de los vecinos.*

## 2.- Protecciones laterales.

*Las superficies ocupadas por la instalación de terrazas o veladores podrán quedar delimitadas por protecciones laterales que acoten el recinto, de acuerdo a las siguientes condiciones:*

*a) Las protecciones laterales deberán ser siempre adecuadas a las condiciones del entorno y estarán sujetas al visto bueno del Ayuntamiento, que estudiará el tema en la correspondiente comisión.*

*b) Serán fácilmente identificables por los invidentes.*

*c) No podrán rebasar la superficie de ocupación autorizada.*

*d) Deberán ser móviles y fácilmente desmontables y ser retiradas fuera del horario de funcionamiento de la terraza. En el caso de que sea preciso realizar anclajes en la vía pública, deberán tener la correspondiente autorización municipal. En todo caso estos se deberán colocar de tal forma que tras su retirada no sobresalgan de la misma. Para el supuesto de que se observen daños o desperfectos en la vía pública ocupada o en elementos urbanos cercanos producidos por la instalación autorizada, la administración municipal exigirá el importe total de los*



Era berean, titularrak ostalaritzako jarduera hori etengo balu, bide publikoa lehen zegoen bezala utzi beharko luke, baldin eta lokal horretan ostalaritzako jarduerak jarraitu egingo duela eta horretarako lotura horiek beharrezkoak izango direla egiaztatzen ez badu behintzat.

e) Bere altuera 0,90 eta 1,20 metro artekoa izango da. Materialak inguruarekin eta terrazan dauden gainontzeko elementuekin bat etorriko dira, eta Udalak ontzat eman beharko ditu. Eragiterakoan zaratarik ez ateratzeko elementuak izango dituzte. Haizearen ezaugarriengatik hala justifikatuta dagoen kasuetan, 1,50 metroraingo albo-babesak jartzea baimendu daiteke.

f) Alboetako babesen euskarrien oinarria biribila izango da.

g) Batzuetan, eta betiere Udalaren oniritziarekin, jardinerak erabili ahalko dira alboak eta aurrealdea babesteko.

### 3.- Egitura erdi-finkoak.

#### Fatxadari lotutako egitura erdi-finkoak.

Egitura erdi-finkoak bakar-bakarrik baimenduko dira jarduera bereziko establezimenduen kasuan edo gutxi erabilitako eremuetan dauden establezimenduen kasuan.

Instalazio erdi-finkoak dira, erraz desmuntatu daitezkeenak. Egitura bat eta albo-itxiturak izaten dituzte, eta gainean

referidos daños.

*De la misma forma, en caso de que el titular de la actividad de hostelería cese en la misma, deberá reponer la vía pública a su estado original, salvo que acredite que en el local se va a seguir desarrollando una actividad de hostelería que puede llevar aparejada la utilización de los anclajes.*

*e) Serán de altura entre 0,90 y 1,20 metros. Los materiales serán acordes al entorno en que se sitúen y al resto de elementos instalados en la terraza y deberán contar con el visto bueno de los Servicios Técnicos Municipales. Dispondrán de elementos que eviten la generación de ruidos en su manejo. En aquellos casos en que las condiciones de viento lo justifiquen, podrá autorizarse la instalación de protecciones laterales cuya altura podrá prolongarse hasta 1,50 metros.*

*f) La base de los soportes de protección lateral habrá de ser redonda.*

*g) Eventualmente y con el visto bueno del Ayuntamiento, se podrán utilizar jardineras a modo de protección lateral y frontal.*

### 3.- Estructuras semi-fijas.

#### **Estructuras semi-fijas adosadas a la fachada**

*Las estructuras semi-fijas únicamente se autorizarán en el caso de los establecimientos de actividades especiales o situados en zonas de bajo tránsito.*

*Son instalaciones semi-fijas, fácilmente desmontables. Constan de una estructura y cerramientos laterales sobre los que se apoya*



estalki bat; egitura hori lurrera ainguratuta egon daiteke. Bide publikoan lurrari erantsi behar izanez gero, udal-baimena beharko dute horretarako. Dena dela, horrela egin behar izanez gero, tresneria kentzean lurreko loturak ezin izango dira lurraren paretik gora atera. Halaber, zoladura desmontagarria eduki dezakete.

Jabari publikoko kontzesioak emateko, bere araudi espezifikoa beteko da.

Ezingo da egitura erdi-finko itxirik jarri arkupeetara atxikita.

Fatxadari lotutako egitura erdi-finkoak mota hauetakoak izan daitezke:

- Pergola + gortina bertikal baten moduko itxitura, kendu daitekeena.
- Pergola + gortina horizontal baten moduko itxitura, kendu daitekeena.
- Pergola + albora jasotzen den kristalezko itxitura

Orokorrean, baldintza hauek ezartzen dira:

a) Gehienezko luzera establezimenduaren fatxadarena izango da, edo horrekin bat datorrena.

b) Instalazioak oinezkoentzako ibilbide nagusiei eragiten badie, horien zabalera librea ezingo da 3,5 metro baino txikiagoa izan.

c) Gehienezko altuera bat etorriko da pareko eraikinaren beheko solairuaren sabaiko forjatuaren azpialdearen altuerarekin. Barrualdeko altuera minimoa, berriz, 2,20 metrokoa izango da.

*una cubierta que puede estar anclada al suelo. El anclaje al suelo en la vía pública requerirá autorización municipal. No obstante, en caso de que sea necesario retirar los anclajes no podrán sobresalir por encima del terreno. También pueden tener pavimento desmontable.*

*El otorgamiento de concesiones demaniales se regirá por su normativa específica.*

*No se podrán colocar estructuras semi-fijas cerradas adosadas a los soportales.*

*Las estructuras semi-fijas adosadas a la fachada pueden ser de varios tipos:*

- *Pérgola + cerramiento tipo cortina vertical, que se pueda retirar.*
- *Pérgola + cerramiento tipo cortina horizontal, que se pueda retirar.*
- *Pérgola + cerramiento de cristal que se recoge lateralmente*

*Con carácter general, se establecen las siguientes condiciones:*

*a) La longitud máxima será la de la fachada del establecimiento o acorde a la misma.*

*b) No podrá reducirse a menos de 3,50 m la anchura libre de los itinerarios peatonales principales existentes que se vean afectados por la instalación.*

*c) La altura máxima será la de la cara inferior del forjado de techo de la planta baja del edificio a que da frente y la altura mínima libre en el interior será de 2,20 metros.*



d) Ezingo da inongo elementurik atera okupazioa baimendu den azaleratik kanpo.

e) Zoladura desmuntagarria baldin badu, urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilak erregistratzeko moduan geratu beharko dira.

f) Diseinu ireki berezia izango dute. Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementu estrukturalak batez ere altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, fundiziokoa), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.

g) Udalak baldintza bereziak ezarri ahal izango ditu kasu bakoitzean. Horretarako, instalazio bat baino gehiago dauden zonak orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.

h) Establezimendua itxita dagoenean, dena erabat jasota geratuko da: ingurua garbi, toldoak bilduta eta mahaiak eta aulkiak establezimenduaren barruan edo fatxadaren kontra jasota. Euskarriak bakarrik geratuko dira bertan.

i) Establezimendua epe luzerako (15 egunetik gora) ixten denean, den-dena jasota utzi beharko da.

j) Instalazioen baldintzak:

- Aireztapena naturala izango da. Ezingo da klimatizazio-instalaziorik jarri.

- Elektrizitate-instalazioa: Instalazio elektrikoa baimendu ahal izango da, bai argiteriarentzat baita erradiadoreak

*d) Ningún elemento podrá sobresalir de la superficie de ocupación autorizada.*

*e) En caso de disponer de pavimento desmontable, los sumideros y arquetas que existiesen en la urbanización deberán quedar registrables.*

*f) Presentarán un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición), y en el supuesto de acabado en pintura, éste será del tipo oxirón o del asignado para el resto del mobiliario del espacio urbano del entorno en que se ubiquen.*

*g) El Ayuntamiento podrá señalar condiciones especiales para cada caso. A tal efecto, las zonas en las que puedan existir varias instalaciones se estudiarán de forma global y según las peculiaridades de cada caso.*

*h) Cuando el establecimiento esté cerrado, todo quedará recogido: el entorno limpio, los toldos recogidos y las mesas y sillas recogidas en el interior del establecimiento o contra la fachada. Solamente quedarán los soportes.*

*i) Cuando se cierre el establecimiento para un tiempo prolongado (más de 15 días), absolutamente todo habrá de quedar recogido.*

*j) Condiciones de las instalaciones:*

*- La ventilación será natural. No se autorizan instalaciones de climatización.*

*- La instalación de electricidad: Podrá autorizarse instalación eléctrica, tanto para alumbrado como para el empleo de*





erabiltzeko ere. Instalazio elektriko hori establezimenduko instalaziora konektatuta egongo da. Instalazioa egiterakoan arau hauek beteko dira:

- Instalazioek bere puntu guztietan beteko dute arau hauetan ezarritakoa: Indarrean dagoen Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoa eta Instrukzio Tekniko Osagarriak. Baimendutako instalatzaileak dagokion ziurtagiria egin beharko du.

- Lokaleko terraza edo mahai-tokira bakarrik emango du argia, auzokide, oinezko edota ibilgailuak itsutu gabe edo bestelako eragozpenik eragin gabe.

- Argiei eusteko establezimenduaren egiturak erabiliko dira, inoiz ez zuhaitzak edo hiri-altzariak, hala nola, eserlekuak, farolak, seinaleak, eta abar. Egitura horiek segurtasun elementuak izango dituzte, bai mekanikoak, bai eta elektrikoak ere.

- Kontuan izanda zein altueratan jarri behar diren, instalatutako aparatuak itxiak izango dira eta, UNE 20324 arauaren arabera, IP-65 babes-maila eduki beharko dute. Establezimenduaren koadro orokorrera konektatuta egongo dira, eta gainera, kontaktu zuzen edo zeharkakoen aurkako babes-sistemak eduki beharko dituzte, piztu eta itzaltzeko balio dutenak.

- Terrazaren funtzionamendu-ordutegian baino ez dira egongo piztuta argiak.

- Behe Tentsioko Erregelamendu Elektroteknikoan adierazitako maiztasunarekin ikuskatuko da instalazio

*radiadores. La instalación eléctrica estará conectada a la del establecimiento al que da servicio. La instalación se realizará con arreglo a las siguientes normas:*

*- Las instalaciones cumplirán en todos sus puntos con lo establecido en el vigente Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión e Instrucciones Técnicas Complementarias, debiendo emitir el instalador autorizado que la realice el oportuno certificado.*

*- Deberá iluminar únicamente la terraza o velador del local, evitando deslumbramientos u otras molestias a los vecinos, viandantes o vehículos.*

*- La sujeción de las luminarias será a estructuras propias del establecimiento y nunca al arbolado o elementos del mobiliario urbano como bancos, farolas, señales, etc., debiendo contar estas estructuras con elementos de seguridad, tanto mecánica como eléctrica.*

*- Los aparatos instalados, dada la altura de colocación, serán cerrados, debiendo estar clasificados con un grado de protección IP-65, según la norma UNE 20324. Estarán conectados al cuadro general del establecimiento, debiendo contar además con sistemas de protección contra contactos directos e indirectos, y que sirvan para el encendido y apagado.*

*- El alumbrado de la terraza únicamente podrá permanecer encendido durante el horario establecido para la utilización de la terraza.*

*- La instalación eléctrica deberá ser revisada con la periodicidad que determine el Reglamento Electrotécnico de Baja Tensión,*



elektrikoa, eta ikuskapen horren kopia bat emango zaio baimena emateko eskumena duen organoari.

Egituretarako mugak:

Eskumena duen udal-agintaritzak horrelako instalazioak jartzeko eskaera ukatu ahal izango du, hauetako edozein kasutan:

a) Bide-segurtasunaren kalterako bada (ikuspena gutxiagotu, gidariari arreta galarazi) edota oinezkoen joan-etorria nabarmen zailtzen badu.

b) Gunea erabilera anitzekoa delako edota urtean zehar bertan ekitaldi eta jarduerak egiten direlako, komenigarria ez bada horrelako instalazioak jartzea.

c) Inguruko eraikin eta lokalen segurtasunean eragina izan dezakeenean (irteerak).

d) Ingururako formalki desegokia denean, toki horrekin bat ez datorrenean, edo hiri-paisaiaren irakurketa zuzena zailtzen duenean.

**Fatxadari lotu gabeko egitura autosostengatzaileak.**

Egitura hauek, bakar-bakarrik, kasu honetan instalatu ahal izango dira: establezimenduak ez daukanean aukera toldoaren bidez terrazan itzaletako gune bat sortzeko. Toldo autosostengatzaileak, eguzkitakok eta antzekoak izan daitezke.

Orokorrean, baldintza hauek ezartzen dira:

*debiendo presentarse una copia de la inspección al órgano competente para la concesión de la autorización.*

*Limitaciones estructurales:*

*La autoridad municipal competente podrá denegar la instalación de este tipo de instalaciones en cualquiera de los siguientes casos:*

*a) Cuando sea perjudicial para la seguridad vial (disminución de la visibilidad, distracción del conductor) o dificulte notablemente el tránsito de peatones.*

*b) Cuando no resulte conveniente la instalación de este tipo de instalaciones por el carácter polivalente del ámbito o por que se celebran actos y actividades a lo largo del año.*

*c) Cuando pueda afectar a la seguridad de los edificios y locales colindantes (salidas).*

*d) Cuando sea inadecuada formalmente para el entorno, no coincida con éste o dificulte la correcta lectura del paisaje urbano.*

***Estructuras autoportantes no adosadas a la fachada.***

*Estas estructuras solamente se podrán instalar en el caso de que el establecimiento no pueda disponer de un espacio de sombra mediante toldo. Han de ser toldos autoportantes, sombrillas o similares.*

*Con carácter general se establecen las siguientes condiciones:*



- Elementu horiek instalatzen diren tokiak ezin izango dira loreontzi, panel eta abarreko elementuak erabiliz itxi. Terraza ingurua garbi eta irekia mantendu behar da une oro.
- Ezingo da inongo elementurik atera okupazioa baimendu den azaleratik kanpo.
- Diseinu ireki berezia izango dute. Lehentasuna emango zaio bistak garbi ikusteari eta herriaren ikuspegia ez ezkutatzeari. Elementu estrukturalak batez ere altzairuzkoak izango dira (herdoilgaitza, fundiziokoa), eta pintatuta badaude, pintura oxiron motakoa izango da, edo bestela, inguruko hiri-altzarietan erabilitakoaren berdina.
- Sostengurako elementuek ez dituzte urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilak oztopatuko.
- Udalak baldintza bereziak ezarri ahal izango ditu kasu bakoitzean. Horretarako, instalazio bat baino gehiago dauden zonak orokorrean aztertuko dira, kasu bakoitzaren berezitasunak kontuan izanda.
- Establezimendua itxita dagoenean, dena erabat jasota geratuko da: ingurua garbi, toldoak bilduta, eta mahaiak eta aulkiak kenduta. Euskarriak bakarrik geratuko dira bertan.

Establezimendua epe luzerako (15 egunetik gora) ixten denean, den-dena jasota utzi

- *Los espacios donde se instalen estos elementos no se podrán acotar mediante macetas, paneles o elementos similares. El entorno de la terraza se mantendrá en todo momento limpio y abierto.*
- *Ningún elemento podrá sobresalir de la superficie de ocupación autorizada.*
- *Presentarán un diseño singular abierto, en el que habrá de primar la permeabilidad de vistas sin que supongan obstáculo a la percepción de la ciudad. Los elementos estructurales serán preferentemente de acero (inoxidable, fundición), y en el supuesto de acabado en pintura, éste será del tipo oxirón o del asignado para el resto del mobiliario del espacio urbano del entorno en que se ubiquen.*
- *Los elementos autoportantes no obstaculizarán los sumideros y arquetas existentes en la urbanización.*
- *El Ayuntamiento podrá señalar condiciones especiales para cada caso. A tal efecto, las zonas en las que puedan existir varias instalaciones se estudiarán de forma global y según las peculiaridades de cada caso.*
- *Cuando el establecimiento esté cerrado, todo quedará recogido: el entorno limpio, los toldos recogidos y las mesas y sillas recogidas en el interior del establecimiento o contra la fachada. Solamente quedarán los soportes.*

*Cuando se cierre el establecimiento para un tiempo prolongado (más de 15 días),*



beharko da.

#### **4.- Plataformak.**

Honako hau hartuko da plataformatzat: plaza eta gunee libreetan desnibela salbatzeko erabiltzen diren elementu osagarriak eta aparkaleku-eremuen gainean instalatutakoak.

Plataforma horiek desmuntagarriak izango dira, ez dute elementu finkorik izango eta zurezkoak izango dira.

Kultur edo kirol jardueraren bat edo bestelakoren bat antolatzen denean, alkateak mahaiak erretiratzeko eskatzen badu, plataforma ere erretiratu egin beharko da, behar den denbora guztian, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe.

Ezingo dute baimendutako azalera gainditu.

Oholtzak ura husteko sistema edukiko du, eta sistema horrek ezingo du oztopatu urbanizazioan ura jasotzeko aurretik zegoen sistema.

Urbanizazioaren estolda-zuloak eta kutxatilak erregistratzeko moduan geratu beharko dira.

Inguruan ainguratutako babesak eduki beharko du, okupatutako gunea babesteko. Inguruko babesaren ordean baranda bat jarri ahal izango da. Izkinetan kaptafaroak jarriko dira.

Oholtza bera eta azpiko zoladura garbi-garbi egongo dira denbora guztian. Lizentziaren titularrari dagokio okupatutako azaleraren garbiketa egitea. Lizentzia edo baimenaren titularrak dagokion lana egin ez duelako Udal

*absolutamente todo habrá de quedar recogido.*

#### **4.- Plataformas.**

*Se entiende por plataforma los elementos auxiliares utilizados para salvar el desnivel en plazas y espacios libres y los instalados sobre las zonas de aparcamiento.*

*Estas plataformas serán desmontables, no tendrán elementos fijos y serán de madera.*

*Cuando se organice una actividad cultural, deportiva u otra, si el Alcalde solicita la retirada de las mesas, la plataforma también deberá ser retirada durante el tiempo necesario sin derecho a indemnización alguna.*

*No podrán superar la superficie autorizada.*

*El tablado dispondrá de un sistema de evacuación de agua que no podrá obstaculizar el sistema de recogida de agua preexistente en la urbanización.*

*Los sumideros y arquetas de la urbanización deberán quedar registrables.*

*Deberá contar con una protección anclada en la zona para proteger la zona ocupada. Se podrá sustituir la protección de la zona por una barandilla. En las esquinas se colocarán captafaros.*

*El tablado y el pavimento inferior estarán permanentemente limpios. Corresponde al titular de la licencia la limpieza de la superficie ocupada. En el caso de que el titular de la licencia o autorización la realice por no*



Zerbitzuek egiten badute, exekuzio subsidiarioetarako aurreikusitako prozeduraren bitartez likidatuko da.

## 5.- Barririk eta mahai altuak.

Barrika edo mahai altuak instalatzeko, lizentzia beharko da. Udalak baimena eman ahal izango du horiek instalatzeko eskatzailearen terraza-eremuaren barruan. Terrazak jartzeko aukerarik ez dutenei, oinezkoak pasatzeko tokiak ez duelako zabalera nahiko terraza instalatzeko, baimenduko zaie, betiere 1,5 metroko pasaera uzten bada. Barririk  $\frac{3}{4}$ -koak izango dira eta erraz mugitzeko modukoak.

## 6.- Berogailuak.

- Berogailuek CE adostasun-aitorpena eduki beharko dute.
- Ezingo da gasezko berogailurik erabili.
- Lizentzia edo baimenaren titularrak izango dira berogailuen zaintza eta erabilera egokiaren arduradunak. Berogailuak segurtasun-baldintzak bete eta egoera ezin hobean egongo dira.
- Berogailuak barne hartzen dituen erantzukizun zibileko aseguruak aurkeztu beharko da.

## 7.- Telebista eta musika-aparatuak.

- Ez da baimenik emango establezimenduaren kanpoan inolako musika-aparaturik edo zarata ateratzen duen besterik instalatzeko.
- Terrazatan telebista instalatzea

*haber realizado el trabajo correspondiente por los Servicios Municipales, se liquidará por el procedimiento previsto para las ejecuciones subsidiarias.*

## 5.- Barricas y mesas altas.

*La instalación de barricas o mesas altas requerirá licencia. El Ayuntamiento podrá autorizar su instalación dentro de la zona de terraza del solicitante. A los que no puedan instalar terrazas, ya que la zona de paso de peatones no tiene anchura suficiente para su instalación, se les permitirá, siempre que se deje un paso de 1,5 metros. Las barricas serán de  $\frac{3}{4}$  y ser de fácil movilidad.*

## 6.- Estufas.

- Los aparatos deberán contar con Declaración CE de conformidad.*
- No podrán utilizarse estufas de gas.*
- Los titulares de la licencia o autorización serán responsables de la conservación y buen uso de las estufas de tal forma que se encuentren en perfecto estado y condiciones de seguridad.*
- Deberá aportarse seguro de responsabilidad civil que incluya las estufas.*

## 7.- Televisores y aparatos musicales.

- No se permite la instalación de ningún aparato de música o emisor de ruido en el exterior de los establecimientos.*
- Se permitirá la instalación de televisores en*



baimenduko da, baldin eta soinurik ez badute eta kokapena udal-teknikariek propio onartu badute.

#### **6. ARTIKULUA. MERKATARITZA-ESTABLEZIMENDUEN HEDAPENA.**

Merkataritza-establezimenduen hedapena espazio publikoan izan daiteke: saltzeko artikuluen erakusketa, propaganda-elementuak edo jarduera komertzialari lotutako beste edozein okupazio-mota. Okupazio horiek Udalaren baimena behar dute eta Udalak, baimena eman aurretik, baloratuko du ea espazio publiko horrek aukera ematen duen horretarako, irisgarritasunagatik. Bermatu beharko da 1,50 metro zabaleko pasaera geratuko dela oinezkoentzat eta jarduera komertzialak dagokion udal baimena daukala.

Okupazioa, bakar-bakarrik, establezimendua irekita dagoen bitartean egingo da, bere ordutegi komertzialaren barruan. Estetikoki egokia izan beharko du eta ondo kokatuta egon beharko du, inori trabarik egin gabe eta oinezkoen pasaera oztopatu gabe.

Ez da, inolaz ere, baimenduko eguzkitakoak instalatzea.

Okupazio horiek dagokien tasa ordaindu beharko dute.

#### **7. ARTIKULUA. HIZKUNTZA-BALDINTZAK.**

Okupatutako eremuan jendearen eskueran eta bistan jartzen diren elementu guztiak

*las terrazas siempre y cuando no tengan sonido y su ubicación sea aprobada expresamente por los técnicos municipales.*

#### **ARTÍCULO 6. EXTENSIONES DE ESTABLECIMIENTOS COMERCIALES.**

*Las extensiones de actividad de establecimientos comerciales al espacio público podrán consistir bien en la exposición de artículos en venta, de elementos de propaganda u otro tipo de ocupaciones de la vía pública vinculadas a una actividad comercial. Estas ocupaciones se sujetan a previa autorización por parte del Ayuntamiento, quien para otorgarla deberá ponderar el espacio público afectado así lo permite, por razón de accesibilidad, garantizando un itinerario peatonal accesible de anchura mínima de 1,50m y que la actividad comercial a que se vincula la ocupación de la porción goce de la preceptiva autorización municipal.*

*La ocupación sólo podrá mantenerse durante el horario de funcionamiento del establecimiento comercial, y deberá mantener una adecuada composición estética y una rigurosa disposición que garantice la accesibilidad de todas las personas a la misma y no implique molestias o distorsiones de los itinerarios peatonales accesibles.*

*En ningún caso se permite la colocación de sombrillas.*

*Estas ocupaciones estarán sujetas a la correspondiente tasa por ocupación.*

#### **ARTÍCULO 7. CONDICIONES LINGÜÍSTICAS**

*Todos los elementos que se pongan a disposición y vista del público en la zona*



(menuak, prezioen zerrendak, kartelak, eskaintzen oharrak, arbeletako oharrak...) euskaraz idatziko dira (beste hizkuntza batzuetan ere idatzi daitezke).

Elementu horiek hizkuntza bat baino gehiagotan jartzen badira, euskarari lehentasuna emango zaio (hurrenkeran, tamainan...).

### III. KAPITULUA ARAUBIDE JURIDIKOA

#### 8. ARTIKULUA. ESKABIDEA ETA ERANTSITAKO DOKUMENTAZIOA.

Alkateari dagokio lizentziak ematea.

Jende guztiaren interesak hala eskatzen duelako eta jabari publikoko espazioa mugatua delako, beharrezkoa da lizentziakopurua eta horien indarraldia mugatzea. Kasu bakoitzean eskatutako denborarako izango dira lizentziak, Ordenantza honetan ezarritakoarekin bat datozen zirkunstantziak kontuan izanda.

Lizentzia eskuratu ahal izateko beharrezkoa izango da:

a) Jarduera burutzeko gaitzen duen jarduera ekonomikoen titularra izatea eta establezimenduak irekitze-lizentzia edukitzea bere izenean, eta/edo aurrekomunikazioa edo jarduera burutzeko gaitzen duen titulua.

b) Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren okupaziorako aurreikusita dauden ordainarazpenak ordaintzea.

*ocupada (menús, listas de precios, carteles, notas de ofertas, pizarras...) se redactarán en euskera, sin perjuicio de que se puedan redactar también en otros idiomas.*

*Si estos elementos se redactan en varios idiomas, se dará prioridad al euskera (en lo que respecta al orden, tamaño...).*

### CAPÍTULO III RÉGIMEN JURÍDICO

#### ARTÍCULO 8. SOLICITUD Y DOCUMENTACIÓN ADJUNTA.

*El otorgamiento de las licencias corresponde al Alcalde.*

*Por razón imperiosa de interés general y debido a la limitación del espacio de dominio público, es necesario limitar el número de licencias y su vigencia temporal. Las licencias se otorgarán por el período temporal que en cada caso se solicite, atendiendo a las circunstancias concurrentes a lo dispuesto en esta Ordenanza.*

*Para poder ser titular de la licencia, será necesario:*

*a) Ser titular de actividades económicas que habiliten para el ejercicio de la actividad y cuyo establecimiento cuente con licencia de apertura a su mismo nombre y/o comunicación previa o título habilitante para el ejercicio de la actividad.*

*b) Satisfacer las exacciones correspondientes a la ocupación del dominio público previstas en las correspondientes Ordenanzas Fiscales.*



Lizentzia eskatu nahi duen pertsonak dagokion eskabidea aurkeztu beharko du udaletxean, Udalak horretarako prestatuta daukan inprimakia erabiliz. (1. eranskina).

Eskabidearekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

a) Lokalaren kokapenaren planoak, 1:200 eskalan egina, edo krokisa, fatxadaren luzera eta instalazioak okupatuko duen azalera mugatua zehaztuz.

b) Instalatu diren altzari eta elementu osagarri guztien definizioa eta beharrezkoa den dokumentazio guztia (argazkiak, katalogoak).

c) Instalatu dituzten mahai eta aulkiak non jasoko dituzten zehaztu beharko da (gainontzeko elementuak barruan jaso behar dira).

d) Egitura erdi-finkoak instalatzeko, eskumena duen teknikariak sinatutako dokumentazioa, honakoa adieraziz:

1) Jarri nahi den egituraren deskribapena, honako ezaugarriak adieraziz: neurriak, materialak, ainguraketa-motak, ezaugarri estetikoak, eta abar.

2) Oina, altxaera eta sekzioak jasotzen dituen planoak, zona horretako zerbitzu publikoen sareak islatuz.

3) Indarrean dagoen araudia kontuan izanda, jasango duen kargaren kalkulua (bere pisua, erabilera-gainkarga, haizearen eragina, etab.). Beharrezko ainguraketa-sistema kontuan hartu beharko da.

*La persona interesada deberá presentar ante el Ayuntamiento la correspondiente solicitud de licencia, utilizando para ello el impreso habilitado al efecto por el Ayuntamiento (anexo 1).*

*La solicitud deberá ir acompañada de los siguientes documentos:*

*a) Plano de emplazamiento del local a escala 1:200 o croquis, con indicación de la longitud de su fachada y detalle acotado de la superficie a ocupar por la instalación.*

*b) Definición del mobiliario y de todos los elementos auxiliares a instalar, incluyendo cuanta documentación sea necesaria (fotografías, catálogos).*

*c) Lugar de almacenaje de las mesas y sillas a instalar (el resto de elementos deberán recogerse en el interior).*

*d) En el caso de instalación de estructura semi-fija, documentación firmada por técnico competente en la que se incluya:*

*1) Descripción de la estructura a instalar, indicando dimensiones, materiales, tipo de anclajes, características estéticas, etc.*

*2) Plano de planta, alzado y secciones en los que se reflejen las redes de servicios públicos existentes en la zona.*

*3) Cálculo de las cargas a considerar de acuerdo a la normativa vigente (peso propio, sobrecarga de uso, acción del viento, etc.). Deberá tenerse en cuenta el sistema de anclaje necesario.*





<p>4) Instalazioaren aurrekontua.</p> <p>5) Lizentzia eman eta egitura jarri ondoren, muntaketari buruz teknikari eskudunak egindako ziurtagiria aurkeztu beharko du. Bertan, segurtasuna eta egonkortasuna jasota geratu beharko dira.</p> <p>6) Baimenak irauten duen bitartean instalazioa barne hartzen duen erantzukizun zibileko poliza.</p> <p>7) Lurra lehen zegoen bezala uzteko bermea jarri izana.</p> <p>8) Suteen aurkako baldintzak betetzen dituela egiaztatzea (suteen aurkako babes-instalazioak, ebakuazio-bideak, egonkortasuna eta suarekiko erreakzioa).</p> <p>9) II. kapituluan adierazitako instalazioen baldintzak betetzen direla egiaztatzea. Instalazioen planoekin osatuko da. Instalazioa jarri ondoren, instalazio elektrikorako baimena duen instalatzailearen ziurtagiria aurkeztu beharko da edo, hala balegokio, Baimendutako Kontrol Erakunde batek egindako ikuskapenaren ziurtagiria.</p> <p>10) Alboko babes-elementuak: materialen eta neurrien deskribapena, katalogoak eta/edo argazkiak.</p> <p>11) Aparkalekuetako edo aldatza duten kaleetako oholtzak: oin, altxaera eta xehetasunei buruzko planoak. Erregistroen xehetasunak eta euri-uren hustuketa bermatzeko irtenbidea.</p> <p>12) Berogailuak: CE ziurtagiria, erantzukizun zibilaren aseguruak eta berogailuaren fitxa teknikoak.</p>	<p>4) <i>Presupuesto de la instalación.</i></p> <p>5) <i>Una vez concedida la licencia e instalada la estructura, deberá aportar certificado del montaje firmado por técnico competente en el que quede constancia de la seguridad y solidez.</i></p> <p>6) <i>Póliza de responsabilidad civil que cubra la instalación durante el periodo de la autorización.</i></p> <p>7) <i>Constitución de garantía para la reposición de suelo.</i></p> <p>8) <i>Justificación del cumplimiento de las condiciones de incendios (instalaciones de protección contra incendios, medios de evacuación, estabilidad y reacción al fuego).</i></p> <p>9) <i>Justificación del cumplimiento de las condiciones de las instalaciones indicadas en el capítulo II. Se complementará con planos de instalaciones. Para la instalación eléctrica, una vez finalizada la instalación, se deberá aportar el certificado del instalador autorizado o el certificado de la inspección realizada por un OCA, en su caso.</i></p> <p>10) <i>Protecciones laterales: Descripción de materiales y dimensiones, catálogos y/o fotografías.</i></p> <p>11) <i>Tarimas en aparcamiento o calles inclinadas: Plano de planta, alzados y detalles. Detalle de registros y solución que garantice la evacuación de aguas pluviales.</i></p> <p>12) <i>Estufas: Certificado CE, copia del seguro de responsabilidad civil y ficha técnica de la estufa.</i></p>
---	---



Lizentzia lehenago emandakoaren baldintza beretan berritu nahi izanez gero, berritzeko inprimakiarekin batera, eta beharrezkoa den kasuetan, aldameneko establezimenduen adostasuna eguneratuta aurkeztu beharko da.

## **9. ARTIKULUA. TXOSTENAK ETA EBAZPENA.**

1.- Eskabidea aurreko artikuluetan adierazi bezala aurkeztu eta beharrezko txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren, Udalak hilabeteko epean erabakiko du.

2.- Hala badagokio, txosten teknikoaren barruan baimendutako instalazioaren baldintza zehatzen (kokapena, okupatuko den azalera etab.) dokumentu edo fitxa bat aurkeztu beharko da.

3.- Hilabeteko epean espresuki ez ebazteak eskabidea ezetsi egin dela adieraziko du; ez, ordea, okupazio-eskabideak jabetza pribatuko lurrari bakarrik eragiten badio eta hirigintzako ordenamendua urratzen ez badu.

## **10. ARTIKULUA. LIZENTZIAREN BALDINTZAK.**

1.- Lizentzia emanda geratzen da beti, jabetza eskubidea izan ezik eta hirugarrenei kalterik eragin gabe, eta ezingo da argudiatu titularrak bere jardunean egindako erantzukizun zibilari edo penalarari uko egiteko edo erantzukizunak murrizteko eta, hala badagokio, beste baimen batzuk lortu behar izateko obligaziotik ere ez du salbuesten.

2.- Lizentziaren dokumentuan instalazio eta

*En el caso de renovación de licencia con las mismas condiciones que la concedida anteriormente, se deberá presentar el impreso de solicitud de renovación junto a la actualización de la conformidad de los establecimientos adyacentes, cuando sea necesaria.*

## **ARTÍCULO 9. INFORMES Y RESOLUCIÓN.**

*1.- Formulada la petición, en los términos exigidos en los artículos precedentes, y previos los pertinentes informes técnicos y jurídicos, el Ayuntamiento resolverá en el plazo de un mes.*

*2.- El informe técnico incluirá, en su caso, un documento o ficha en que se recojan en un plano las condiciones concretas (emplazamiento, superficie a ocupar, etc.) de la instalación que se autorice.*

*3.- La no resolución expresa en el plazo de un mes tendrá efectos desestimatorios, salvo que la solicitud de ocupación afecte únicamente a suelo de titularidad privada y no infrinja el ordenamiento urbanístico.*

## **ARTÍCULO 10. CONDICIONES DE LA LICENCIA.**

*1.- La licencia siempre se entenderá otorgada salvo el derecho de propiedad y sin perjuicio de terceros, no pudiendo ser invocada para excluir o disminuir la responsabilidad civil o penal en que hubiera incurrido la persona titular en el ejercicio de sus actividades, ni le exime de la necesidad, en su caso, de obtener otras autorizaciones.*

*2.- En el documento de la licencia se fijarán las*



elementu osagarrien baldintzak zehaztuko dira: Kokaleku zehatza, okupatuko den azalera, zenbat denborarako emango den, eta beharrezkotzat jotzen diren gainerako xehetasun guztiak.

3.- Lizentzia beti prekarioan emango da eta Alkatetzak instalazioak bide publikotik kentzeko agindu ahalko du, baimendutako instalazio guztiengatik edo batzuegatik kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik gabe, trafikoa, urbanizazioa, obrak edo ekintza kulturalak, kirolak eta interes orokorreko beste jarduera batzuegatik hala egitea komeni bada.

Dena dela, baimendutako instalazio osoa edo zati bat astebetetik gora egon behar bada kenduta, denbora horri dagokion tasaren zati proportzionala itzuliko du Udalak.

4.- Instalazioaren ondorioz bide publikoan egindako kalte guztiak konpondu beharko ditu lizentziaren titularrak.

5.- Ordenantza Fiskaletan jabari publikoaren okupaziorako aurreikusita dauden ordainarazpenak ordaindu beharko ditu lizentziaren titularrak, bai eta itsas-lehorreko jabari publikoaren okupaziotik sortutakoak ere, halakorik bada.

Lizentzia eman zaiola jakinarazteko idatzia jasotzen duenetik hilabeteko epean ordaindu beharko ditu eskatzaileak ordainarazpen horiek.

Epe hori bukatutakoan, ordainketa egin gabe

*condiciones de la instalación y elementos auxiliares: Emplazamiento detallado, superficie a ocupar, período de vigencia de la concesión, y demás particularidades que se estimen necesarias.*

*3.- La licencia se concederá siempre con carácter de precario y la Alcaldía podrá ordenar la retirada de la vía pública sin derecho a indemnización alguna de la totalidad o parte de las instalaciones autorizadas, cuando por circunstancias de tráfico, urbanización, obras o actividades culturales, deportivas o de otra índole de interés general, así lo aconsejen.*

*No obstante, en el supuesto de que la retirada de la totalidad o parte de la instalación autorizada sea de duración mayor a una semana, el Ayuntamiento devolverá la parte proporcional de la tasa correspondiente al periodo en que se ha privado del uso de la misma.*

*4.- La persona titular de la licencia queda obligada a reparar cuantos daños se produzcan en la vía pública como consecuencia de la instalación.*

*5.- El titular de la licencia deberá satisfacer las exacciones correspondientes a la ocupación del dominio público previstas en las correspondientes Ordenanzas Fiscales, así como las derivadas de la ocupación del dominio público marítimo-terrestre, en su caso.*

*Dichas exacciones deberán ser abonadas dentro del plazo de un mes contado a partir de la recepción por parte del solicitante de la notificación del otorgamiento de la licencia.*

*Transcurrido dicho plazo sin que se haya*



baldin badauka, emandako baimena ondorio guztietarako iraungita geratuko da eta egindako likidazioa automatikoki baliogabetuta. Beraz, eta hala badagokio, jabari publikoa okupatzeko lizentzia berria eskatu beharko du interesdunak.

Era berean, jarduerarekin lotuta titularrak Udalari ordaindu behar dizkion eskubideen ordainketan egunean egoteak baldintzatu egingo du baimen hori. Arrazoi horrengatik baimena ukatzeko, beharrezkoa izango da Udalaren aldeko eskubidea aitortzen duen administrazio-espeditentea administrazio bidean ebazpen irmoz bukatuta egotea.

6.- Lizentziaren onuradunak ezingo ditu inolaz ere mahai-tokirik jarri, Udalak onartutako ordainarazpenak ordaindu aurretik.

7.- Okupazioa ezin izango da Udalak baimendutako azalera baino handiagoa izan, inondik ere, eta lizentziarekin batera aurkeztutako planoan adierazitako mugen barruan geratu beharko dira elementu guztiak eta horren ondorioz, ezin izango dira jarri kanpoko barrak, makinak, kioskoak, karpak edo antzekoak, ohiz kanpoko egoeretakoa emandako baimenetan izan ezik.

8.- Mahaiak jartzeko lizentziaren titularrak, lizentziak indarraldia galdu ondoren, eragindako baldosa guztiak ordezkatu beharko ditu. Lizentziaren titulartasuna aldatzen bada, edo lizentzia bukatutakoan, beste titularren batek ainguraketa horiek erabiltzen jarraitu nahi badu, lizentzia berriaren eskabidean berariaz adierazi beharko du lizentzia bukatzen denean

*efectuado el correspondiente abono, la autorización concedida se considerará caducada a todos los efectos, quedando automáticamente anulada la liquidación emitida, por lo que el interesado deberá, en su caso, solicitar nueva licencia para poder ocupar el dominio público.*

*Del mismo modo la autorización estará condicionada a que el titular esté al corriente en el pago de cualquier derecho a favor del Ayuntamiento, que estuviese relacionado con la actividad. Para denegar la autorización por este motivo será necesario que el expediente administrativo que declare el derecho a favor del Ayuntamiento se encuentre finalizado con resolución firme en vía administrativa.*

*6.- El beneficiario de la licencia no podrá en ningún caso proceder a instalar los veladores antes de realizar el abono de las exacciones aprobadas por el Ayuntamiento.*

*7.- La ocupación no podrá en ningún caso sobrepasar la superficie autorizada por el Ayuntamiento, debiendo quedar todos los elementos dentro de la delimitación indicada en el plano que se adjunta a la licencia, estando prohibida la instalación de barras exteriores, máquinas, quioscos, carpas o similares, salvo autorización especial en situación excepcional.*

*8.- El titular de la licencia de veladores, una vez que la licencia haya perdido su vigencia, deberá sustituir todas las baldosas afectadas. En el caso de que se modifique la titularidad de la licencia, o cuando tras la extinción de la licencia, otro titular pretenda continuar con el uso de los anclajes realizados, en la solicitud de nueva licencia, deberá indicar expresamente que cuando se extinga la licencia asumirá la*



eragindako baldosak ordezkatzeko erantzukizuna bere gain hartuko duela.

9.- Establezimenduak bere kategoriaren arabera baimenduta dituen edari eta artikuluak bakarrik zerbitzatu ahalko ditu terraza eta mahai-tokietan, eta betiere udal-ordenantzetan ezarritakoarekin bat etorrira.

10.- Lizentziaren titularra arduratuko da bizilagunek lasaitasunerako duten eskubidea errespetarazteaz eta horregatik ez du iskanbila, haserre eta zaratarik ateratzen utziko, batez ere gaueko 22:00etatik goizeko 8:00etara.

11.- Baimenaren titularra behartuta dago okupatutako eremua garbi-garbi edukitzera egun osoan zehar. Aldian-aldian erratza pasatu eta garbitu egingo du.

12.- Era berean, laneguna amaitutakoan altzari guztiak establezimenduaren barruan gordeko ditu eta goizeko 6:00ak baino lehenago, okupatutako zona ere garbi-garbi utziko du beti. Horretarako, hondakinak bildu eta dagokion edukiontzietan utziko ditu.

Plaza inguruko oinezko eremuan Udalak baimendu ahal izango du mahai eta aulkiak fatxadaren kontra pilatuta uztea, betiere ondo justifikatzen bada eta dagokion tasa ordaintzen bada.

Gainontzeko eremuetan, mahai eta aulkiak fatxadaren kontra pilatuta utzi ahal izango dira dagokion tasa ordainduz gero.

13.- Dagokion agintaritzak hala eskatzen

*responsabilidad de sustituir las baldosas afectadas.*

*9.- En las terrazas o veladores únicamente se podrán servir consumiciones y artículos para los que el establecimiento esté autorizado de acuerdo con su categoría y conforme a lo establecido en las ordenanzas municipales.*

*10.- El titular de la licencia velará para que se respete el derecho a la tranquilidad del resto del vecindario por lo que no permitirá escándalos, riñas y ruidos, con especial atención de 22:00 a 08:00 horas.*

*11.- El titular de la autorización tiene la obligación de mantener, durante todo el día, el espacio ocupado en las debidas condiciones de limpieza e higiene, efectuando tareas de barrido y limpiezas periódicas.*

*12.- Así mismo, al término de cada jornada deberá recoger los elementos del mobiliario en el interior del establecimiento, debiendo dejar el espacio ocupado en perfectas condiciones de limpieza y siempre antes de las 06:00 horas, para lo cual deberá proceder a la recogida de residuos y depositarlos en el contenedor correspondiente.*

*En la zona peatonal de alrededor de la plaza, el Ayuntamiento podrá autorizar que las mesas y sillas queden apiladas contra la fachada, siempre que se justifique debidamente y previo pago de la tasa correspondiente.*

*En el resto de zonas, las mesas y sillas podrán ser apiladas contra la fachada mediante el pago de la tasa correspondiente.*

*13.- A requerimiento de la autoridad*



badu titularrek udal-baimena eskatu beharko dute.

## **11. ARTIKULUA. INDARRALDIA ETA BERRIKUNTZA.**

1.- Erabilera publikoko bideetan (kale, plaza, espazio libre, pasabideak, etab.) terraza eta mahai-tokiak jartzeko emandako lizentzien hasierako iraupena gehienez ere 4 urtekoa izango da, eta berritu ahal izango da, Ordenantza honetan ezarritakoaren arabera, eta betiere, beste araudi batzuetan aurreikusitako epemugak errespetatzeari utzi gabe.

2.- Indarraldia bukatutakoan, eta dagokion lizentzia berritu behar ez bada, lizentziaren titularrak edo, hala badagokio, establezimenduarenak instalazio guztia kendu beharko du bide publikoa lehen zegoen bezala utziz.

3.- Lizentziaren onuradunek hasierako baimenean edozein aldaketa egin nahi izanez gero (irekitze-lizentziaren, aurrekomunikazioaren edo jarduera burutzeko gaitzen duen baimenaren titularra, okupazio-azalera, altzariak, kokapena etab.), lizentzia eskatu beharko dute berriro ere eta, hala badagokio, baita lizentziaren transmisioaren berri eman ere.

4.- Lizentzia eman ondoren, baldintza beretan berritu nahi den bakoitzean, interesdunak eskabide berri bat aurkeztu beharko du 11.3 artikuluekin bat etorrira.

## **12. ARTIKULUA. FUNTZIONAMENDU-ORDUTEGIA.**

*competente los titulares deberán mostrar la autorización municipal.*

## **ARTÍCULO 11. VIGENCIA Y RENOVACIÓN.**

*1. Las licencias otorgadas para la colocación de terrazas y veladores en vías de uso público (calles, plazas, espacios libres, pasadizos, etc.) tendrán una duración máxima inicial de 4 años, susceptible de renovación, conforme a lo establecido en la presente Ordenanza, y sin perjuicio de los límites previstos en otra normativa.*

*2. Transcurrido el período de vigencia, la persona titular de la licencia o, en su caso, la del establecimiento correspondiente, deberá retirar toda la instalación devolviendo la vía pública a su estado anterior, salvo que se tramite la correspondiente renovación de licencia.*

*3. Siempre y cuando los beneficiarios de una licencia pretendan realizar cambios con respecto a la autorización inicial en cualquiera de sus aspectos (cambio de titular de la licencia de apertura y/o comunicación previa o título habilitante para el ejercicio de la actividad, superficie de ocupación, mobiliario, ubicación, etc.) deberán presentar una nueva solicitud de licencia y, en su caso, dar cuenta de la transmisión de la licencia.*

*4. Una vez concedida la licencia, cada vez que se pretenda su renovación en los mismos términos y condiciones, la persona interesada deberá presentar una nueva solicitud conforme al artículo 11.3.*

## **ARTÍCULO 12. HORARIO DE FUNCIONAMIENTO.**



Ezarritako ordutegiak hauek izango dira:

a) Mahai eta aulkiak jasotzeko ordutegia: Bigarren Taldeko establezimenduek goizeko 01:30ean, ostiral, larunbat eta jai-bezperetan, eta gaueko 00:00ak gainerako egunetan. Hirugarren Taldeko establezimenduek, goizeko 02:00etan, ostiral, larunbat eta jai-bezperetan eta gaueko 00:00etan gainerako egunetan.

b) Uda garaian ordutegi horiek ordu erdi bat luzatuko dira.

c) Ezingo da mahai eta aulkirik jarri goizeko 07:00ak izan arte, ohiz kanpoko baimena izan ezean.

San Pedro jaietan, San Nikolas jaietan, Bisiguaren Egunean eta horrelako bestelako jaietan, mahaiak eta aulkiak erretiratzeko ezarritako ordutegia berezia izango da.

Terraza aldera leiho bat daukaten establezimenduek itxi egin beharko dute leiho hori 00:00etan.

Nolanahi ere, mahai eta aulkiak jasotzeko ezarritako ordutegia alde batera utzita, Barne Sailak ezarritako ordutegiak errespetatu beharko dituzte establezimenduek, beren kategoriaren arabera, eta ezingo dituzte jarrita eduki establezimenduaren itxiera-ordutik aurrera.

Jarduera ez bada hasten terrazak eta mahaitokiak ireki daitezkeen ordu berean, Udalak oniritzia emanaz gero, terraza osatzen duten elementuak kanpora atera ahal izango dira, bizilagunen atsedeen eskubidea errespetatuz.

*Los horarios establecidos serán los siguientes:*

*a) El horario de retirada de mesas y sillas será el siguiente: los establecimientos del Segundo Grupo, las 01:30 horas los viernes, sábados y vísperas de fiesta y las 00:00 horas el resto de los días. Los establecimientos del Tercer Grupo, las 02:00 horas los viernes, sábados y vísperas de fiesta y las 00:00 horas el resto de los días.*

*b) Durante la temporada estival, estos horarios se prolongarán media hora.*

*c) No podrán colocarse las mesas y sillas hasta pasadas las 07:00 horas de la mañana, salvo autorización excepcional.*

*Independientemente del régimen de horarios que en cada momento esté establecido, durante las Fiestas de San Pedro, San Nikolas y Bisiguaren Eguna y otras fechas de significado especial el horario de retirada será libre.*

*Los establecimientos que cuenten con una ventana hacia la terraza tendrán que cerrarla a las 00:00.*

*En todo caso, con independencia del horario establecido para la recogida de mesas y sillas, los establecimientos deberán respetar los horarios establecidos por el Departamento de Interior en función de su categoría, no pudiendo mantenerlos instalados a partir de la hora de cierre del establecimiento.*

*Si la actividad no se inicia a la misma hora de apertura de terrazas y veladores, previo visto bueno del Ayuntamiento, los elementos que componen la terraza podrán sacarse al exterior respetando el derecho de descanso de los vecinos.*



Egitura erdi-finkoetan ezin izango dira gauzak gorde.

Bizilagunak behin eta berriz kexatzen badira mahai-tokiaren erabilerak sortutako eragozpenengatik, egoera aztertu eta Alkatetzak, egoki baderitzo, itxiera-ordutegia aldi baterako edo betiko mugatu ahalko du eta, hala badagokio, baita lizentzia baliogabetu eta instalazioa kentzera behartu ere.

### **13. ARTIKULUA. OKUPATU DAITEKEEN AZALERA MUGATZEA.**

Lizentzia lortu ondoren eta lizentziaren titularra tokian bertan dela, baimendutako okupazio-azaleraren mugak argi eta zehatz adieraziko dizkio Udalak.

Mugaketa hori lurzoruan bertan egingo da Udalak definitzen duten sistema erabiliz eta bere baimenik gabe ezingo da, inolaz ere, mugaketa hori aldatu edo kendu.

Mugaketa egiteko erabilitako sistemak zoladura hondatzen badu, baimena amaitu eta gero, lizentziaren titularra arduratuko da zoladura lehen zegoen bezala uzteaz.

### **14. ARTIKULUA. LIZENTZIAREN TITULARRAREN BETEBEHARRAK.**

Izaera orokorreko betebeharrei eta Ordenantza hau aplikatuzetik eratorritakoei kalterik egin gabe, lizentziaren titularra behartuta dago okupazio-baimena duen lurzorua, instalazioa bera eta bere elementu osagarriak garbitasun, segurtasun eta apainduraren aldetik egoera ezin hobean mantentzera, eta horretarako beharrezko

*En el supuesto de estructuras semi-fijas no se podrá almacenar dentro de las mismas.*

*En el caso de producirse quejas reiteradas por parte de los vecinos referentes a molestias derivadas de la utilización del velador, la Alcaldía, una vez verificadas las mismas, podrá, si lo estima oportuno, limitar temporal o definitivamente el horario de cierre y revocar en su caso la licencia, con la consiguiente retirada de la instalación.*

### **ARTÍCULO 13. DELIMITACIÓN DE LA SUPERFICIE SUSCEPTIBLE DE OCUPACIÓN.**

*Obtenida la licencia, el Ayuntamiento, con presencia del titular de la licencia, procederá a señalar sobre el lugar, de forma clara y precisa, los límites de la superficie máxima de ocupación autorizada.*

*Dicha delimitación se hará sobre el suelo mediante el sistema que defina el Ayuntamiento, y bajo ningún concepto podrá ser alterada ni retirada sin su autorización.*

*En el caso de que el sistema de delimitación adoptado dañe el pavimento, el titular de la licencia, una vez finalizada la autorización, será responsable de restituir el pavimento.*

### **ARTÍCULO 14. OBLIGACIONES DE LA PERSONA TITULAR DE LA LICENCIA**

*Sin perjuicio de las obligaciones de carácter general, y de las que se deriven de la aplicación de la presente Ordenanza, la persona titular de la licencia queda obligada a mantener tanto el suelo cuya ocupación se autoriza, como la propia instalación y sus elementos auxiliares, en perfectas condiciones de limpieza, seguridad y ornato, utilizando para ello todos*





dituen bitarteko guztiak erabiliko ditu, besteak beste zakarrontziak, hautsontziak etab.

Era berean, dagozkion tasa eta gainerako zergak ordainduko dizkio Udalari, Ordenantza Fiskaletan ezarritako zenbatekoan eta moduan.

#### **IV. KAPITULUA ZEHAPEN-ARAUBIDEA**

##### **15. ARTIKULUA. LIZENTZIARIK GABEKO INSTALAZIOAK.**

Bide publikoan lizentziarik gabe jarritako terraza, mahai-toki edo beste edozein elementu osagarri, kautela-moduan eta berehala, kendu eta horretarako izendatutako tokian gorde ahal izango ditu Udaltzaingoak, arduradunaren kontura; horrez gain, arauzko zigorrak ere jarri ahal izango dira.

Erabilera publikoko lurzorua horrelako instalazioen bidez lizentziarik gabe okupatzea hirigintzako arau-haustetzat jotzen da eta, instalazio guztia desmuntatu eta kendu behar izateaz gain, indarrean dagoen hirigintza-ordenamenduan aurreikusita dauden zigorrak jarri ahal izango zaizkio arduradunari, aurrez dagokion espedientea tramitatu eta gero.

Lizentziak babesten duen epea bukatu ondoren, terraza eta mahai-tokia jartzeko lizentzia berririk ez eskatzea, ondorio hauetarako, udal-baimenik gabe egotea da.

##### **16. ARTIKULUA. LIZENTZIAREN BALDINTZAK EZ BETETZEA.**

*los medios necesarios tales como papeleras, ceniceros, etc.*

*Asimismo, abonará al Ayuntamiento las tasas y demás tributos que pudieran corresponderle, en la cuantía y forma establecidas por las Ordenanzas Fiscales.*

#### **CAPITULO IV REGIMEN SANCIONADOR**

##### **ARTÍCULO 15. INSTALACIONES SIN LICENCIA.**

*La Policía Municipal podrá retirar, de forma cautelar e inmediata, las terrazas y veladores o cualquier elemento auxiliar instalados sin licencia en la vía pública, y proceder a su depósito en lugar designado para ello, a costa de la persona responsable, sin perjuicio de la imposición de las sanciones reglamentarias.*

*La ocupación de suelo de uso público sin licencia mediante estas instalaciones se considera infracción urbanística y, con independencia del desmontaje y retirada de toda la instalación, podrán serle impuestas a la persona responsable las sanciones previstas en el ordenamiento urbanístico vigente, previa la instrucción del correspondiente expediente.*

*El hecho de no solicitar renovación de licencia de terrazas y veladores, tras la finalización del período amparado por la licencia será asimilada, a los presentes efectos, a la situación de falta de autorización municipal.*

##### **ARTÍCULO 16. INCUMPLIMIENTO DE LAS CONDICIONES DE LA LICENCIA.**



Lizentziaren baldintzak edo Ordenantza honetan jasotako aginduak betetzen ez badira, isuna jarriko da, hirigintzari eta toki-araubideari buruz indarrean dagoen legedian agertzen den moduan eta aurrez dagokion espedientea tramitatu ondoren; horrez gain, lizentzia baliogabetu eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea gerta daiteke, Udalaren errekerimendua bete ezean.

## **17. ARTIKULUA. EXEKUZIO SUBSIDIARIOA.**

Bide publikoan jarritako elementuak kentzeko udal-aginduari kasurik egin ezean, Ordenantza honetan jasotako kasuetan, Udalak berak kendu eta horretarako aurrez erabakitako tokian gordeko ditu. Jabeak dagozkion tasa eta gastuak ordaindu ondoren jaso ahal izango ditu Udalak gordetako elementu horiek.

## **18. ARTIKULUA. ARAU-HAUSTEAK ETA ZIGORRAK.**

Ordenantza honen ondorioetarako, arau-haustek arinak, larriak eta oso larriak izango dira.

### **Arau-hauste arinak**

Hauetako izango dira arau-hauste arinak:

a) Terraza eta mahai-tokietako altzariak ezarritako ordutegiz kanpo jartzea, horretarako baimen baldintzaturik eduki gabe.

*El incumplimiento de las condiciones de la licencia o de los preceptos recogidos en la presente Ordenanza dará lugar a la imposición de una sanción económica en los términos de la legislación vigente sobre urbanismo y régimen local y previa instrucción del correspondiente expediente, sin perjuicio de la revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en los casos de desobediencia al requerimiento municipal.*

## **ARTÍCULO 17. EJECUCIÓN SUBSIDIARIA.**

*Cuando se hiciera caso omiso de la orden municipal de retirada de los elementos instalados en vía pública, en los supuestos recogidos en esta Ordenanza, la Administración procederá a su levantamiento, quedando depositados en el lugar designado para ello, de donde podrán ser retirados por la propiedad, previo el abono de las tasas y gastos correspondientes.*

## **ARTÍCULO 18. RÉGIMEN DE INFRACCIONES Y SANCIONES.**

*A los efectos de la presente Ordenanza, las infracciones se clasifican en leves, graves y muy graves.*

### **Infracciones leves**

*Tendrán la consideración de infracciones leves:*

*a) La colocación de mobiliario de terrazas y veladores fuera del horario establecido, salvo autorización condicionada al efecto.*



b) Terraza edo mahai-tokia osatzen duten elementuak (mahai, aulki eta beste zenbait elementu osagarri) baimendutako kokalekutik kanpo jartzea.

c) Mahai-tokia osatzen duten elementuak jaso ondoren, sortutako hondakinak ez jasotzea.

d) Oinezkoen joan-etorria bermatzeko Ordenantza honetan adierazi diren neurriak ez betetzea.

e) Okupatuko den espazioa apaindura, segurtasun eta garbiketaren aldetik behar bezain ondo ez edukitzea.

f) Mahai-tokiak Itsasertzeko Pasealekuan okupatzen duen lurzorua mangera baten bidez garbitu eta hondartzara ura isurtzea.

g) Ordenantza honetan jasotako araudiaren beste edozein ez betetze egitea, arau-hauste hori larria edo oso larria ez bada.

### **Arau-hauste larriak**

Hauek izango dira arau-hauste larriak:

a) Terrazak, mahai-tokiak eta beste elementu osagarri batzuk lizentziarik gabe jartzea.

b) Aurreko bi urteetan hiru arau-hauste arin egin izanak hurrengo arau-hauste larria izatea ekarriko du.

### **Arau-hauste oso larriak**

Hauek izango dira arau-hauste oso larriak:

*b) La colocación de componentes de la terraza o velador (mesas, sillas u otros elementos auxiliares) excediéndose o fuera de la ubicación autorizada.*

*c) No proceder a la recogida de los residuos originados una vez retirados los componentes del velador.*

*d) No respetar las medidas indicadas en la presente Ordenanza, referentes a preservar el tránsito normal de las personas.*

*e) No mantener el espacio de ocupación en las debidas condiciones de ornato, seguridad y limpieza.*

*f) Limpiar el suelo ocupado por el velador en el paseo marítimo mediante manguera, vertiendo las aguas a la playa.*

*g) Cualquier otro incumplimiento de la normativa recogida en la presente Ordenanza que no tenga la consideración de grave o muy grave.*

### **Infracciones graves**

*Tendrán la consideración de infracciones graves:*

*a) La instalación de terrazas, veladores y otros elementos auxiliares sin licencia.*

*b) La reiteración de tres infracciones leves en los dos años precedentes motivará que la siguiente tenga la consideración de grave.*

### **Infracciones muy graves**

*Tendrán la consideración de infracciones muy graves:*



a) Urte berean hiru arau-hauste larri egin izanak hurrengo arau-hauste oso larria izatea ekarriko du.

b) Lizentziaren edozein betebeharrak, debeku edo baldintza ez betetzea, behar bezala egiaztatu ondoren bizilagun edo oinezkoen interesari, segurtasun eta/edo osasunari kalte larriak eragin dizkiola.

Aurreko arau-hausteei ondorengo eskalaren arabera isunak jarriko zaizkie, EAEko urteko KPIren igoera aplikatuz:

- Arau-hauste arinak: 150etik 750 eurora bitarteko isuna eta/edo lizentzia baliogabetzea eta ondorioz instalazioa berehala kenaraztea, udal errekerimendua bete ezean.
- Arau-hauste larriak: 751tik 1.500 eurora bitarteko isuna eta/edo Ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko establezimendua gaitasunik gabe uztea, gehienez ere 2 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.
- Arau-hauste oso larriak: 1.501etik 3.000 eurora bitarteko isuna eta/edo Ordenantza honek arautzen dituen baimenak aurrerantzean lortzeko establezimendua gaitasunik gabe uztea, gehienez ere 4 urtez, gertakarien larritasunaren arabera.

Instalazioa aurrerago legeztatuko balitz eta arau-haustea etengabea izan ez bada edo udal-errekerimenduei aurre egin ez bazaie, zigorra isuna jartze hutsera muga daiteke.

Aldez aurretik dagokion espedientea

*a) La reiteración de tres infracciones graves en un año motivará que la siguiente tenga la consideración de muy grave.*

*b) Todo incumplimiento de obligaciones, prohibiciones o condiciones de la licencia que, debidamente acreditadas, causen perjuicios graves al interés, seguridad y/o salubridad de los vecinos o transeúntes.*

*Las anteriores infracciones serán sancionadas con multa de conformidad con la siguiente escala, y con la aplicación de la correspondiente subida del IPC anual de la CAPV:*

- *Infracciones leves con multa de 150 a 750 euros y/o revocación de la licencia y consiguiente retirada inmediata de la instalación, en casos de desobediencia al requerimiento municipal.*
- *Infracciones graves con multa de 751 a 1.500 euros y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente Ordenanza, hasta un plazo máximo de 2 años, a tenor de la gravedad de los hechos.*
- *Infracciones muy graves con multa de 1.501 a 3.000 euros y/o inhabilitación del establecimiento para la obtención de futuras autorizaciones reguladas en la presente Ordenanza, hasta un plazo máximo de 4 años, a tenor de la gravedad de los hechos.*

*Si la instalación fuera legalizada posteriormente, y no se hubiese dado reiteración o resistencia a los requerimientos municipales, la sanción se podrá limitar a la sanción económica.*

*Las sanciones que procedan solo podrán*



tramitatutakoan bakarrik jarri ahalko dira zigorrak. Otsailaren 20ko 2/1998 Legeak, Euskal Autonomia Erkidegoko Herri Administrazioen Zigortzeko Ahalmenari buruzkoak, ezarritakoaren arabera izapidetuko da espedientea.

### **XEDAPEN GEHIGARRIA ARAU ESTETIKOAK**

Era honetako instalazioak jartzeko lizentziaren titularrek ezin izango dute publizitate komertzialarekin edo babesleen izenarekin apaindutako altzaririk erabili.

Altzariak nagusiki aluminiozkoak edo egurrezkoak izango dira eta beste material batzuekin konbinatu ahal izango dira, besteak beste, tratatutako egurra, biniloa eta beste batzuekin, betiere materialen kalitatea gutxitzen ez badute. Kanpoaldean altzariak arrastaka eramaten direnean edo kolperen bat izaten dutenean zaratarik ez ateratzeko moduko gomazko elementuak jarriko zaizkie euskarri guztietan.

Debekatuta dago terraza edo mahai-tokia osatzen duen inongo elementutan, ezta elementu osagarrietan ere, publizitatea jartzea.

Mahai-tokiaren estalkiak, pergola motakoak ez direnean, oihalez edo antzeko materialez eginak izan behar dute; egitura arina izango da eta guztiz desmuntatzen dena.

Koloreak: tonu neutroak erabili beharko dira (txuria, krema, metalizatuak...) edo, bestela, herriaren ezaugarri diren koloreak (horia, esaterako). Nolanahi ere, era harmonikoan ezkondu behar dute elkarrekin eta inguruarekin (bai materialei, bai diseinuari

*imponerse previa la instrucción del correspondiente expediente, que será tramitada de conformidad con lo dispuesto en la Ley 2/1998 de 20 de febrero de la potestad sancionadora de las Administraciones Públicas.*

### **DISPOSICIÓN ADICIONAL NORMAS ESTÉTICAS**

*El titular de la licencia para este tipo de instalaciones no podrá utilizar mobiliario que esté decorado con publicidad comercial o de sponsorización.*

*El mobiliario será predominantemente de aluminio o madera, pudiendo combinarse con otros materiales tales como la madera tratada, vinilo, etc., siempre que no signifique detrimento en la calidad de los materiales. Todo mobiliario dispondrá de elementos de goma que recojan totalmente todos los apoyos para evitar ruidos por impacto y arrastre en el exterior.*

*Se prohíbe la publicidad en cualquiera de los elementos que componen la terraza o velador, así como en sus distintos elementos auxiliares.*

*Las cubiertas de los veladores que no sean de tipo pérgola tienen que ser de materiales textiles o similares, soportados por elementos ligeros, totalmente desmontables.*

*Colores: Se deberán utilizar los tonos neutros (blancos, cremas, metalizados...) o bien tonos característicos del municipio, como el color corporativo municipal y en cualquier caso, tienen que armonizar entre sí y con el entorno en el cromatismo, los materiales, el diseño y la*



eta bai argiztapenari dagokienez). Ezin dira erabili kolore deigarri edo bizi-bizikiak. Interesatuak zalantza badu zein kolore edo material erabili, ordenantza hau betetzeko, Udalera jo behar du, lizentzia eskatu aurretik, eta han argitu kontu horiek guztiak.

Eskabide berrietan eta lizentzia berritzeko direnetan ere, adierazi egin behar dira jarri nahi diren instalazioaren eta altzarien euskarrietako gomazko elementuen ezaugarriak; horiek Udalaren oniritzia jaso beharko dute.

## **INDARGABETZEKO XEDAPENA**

Ordenantza honek berariaz indargabetzen du udalbatzarrak 2014ko otsailaren 17an onartutako «Bide publikoa erabiltzeko eta terraza eta mahai-tokiekin okupatzeko udal-ordenantza».

## **XEDAPEN IRAGANKORRA**

Emanda dauden baimenak, gaur egun indarrean daudenak, ordenantza honetan ezarritako baldintzetara egokitu egin beharko dira, ordenantza hau argitaratu eta urte beteko epean. Egitura erdi-finkoei buruz ezarritakoa betetzeko, bi urteko gehieneko epea ezartzen da.

Egokitzapena egiteko, Udalari baimena berritzea eskatu beharko zaio, epe horren barruan, ordenantza honetan ezarritako baldintzen arabera.

*iluminación. No pueden utilizarse colores llamativos y/o chillones. A estos efectos y en caso de que el interesado tenga dudas sobre la adecuación a la presente normativa de un determinado material o color, podrá dirigirse al Ayuntamiento a fin de aclarar estos extremos con carácter previo a la solicitud de autorización.*

*Tanto en las nuevas solicitudes como en las peticiones de renovación se deberá indicar las características del mobiliario que se va a instalar, así como de los elementos de goma de los apoyos del mobiliario, el cual deberá recibir el visto bueno del Ayuntamiento.*

## **DISPOSICIÓN DEROGATORIA**

*La presente Ordenanza deroga expresamente la Ordenanza municipal sobre el uso y la ocupación de la vía pública con terrazas y veladores aprobada por el Pleno de 17 de febrero de 2014.*

## **DISPOSICIÓN TRANSITORIA**

*Las autorizaciones concedidas y vigentes actualmente deberán adecuarse a las condiciones establecidas en la presente ordenanza en el plazo de 1 año desde la publicación de la aprobación definitiva de la misma. Se establece un plazo máximo de dos años para dar cumplimiento a lo establecido sobre estructuras semifijas.*

*Para dicha adecuación deberá solicitarse en ese plazo la correspondiente renovación de licencia conforme a las condiciones recogidas en la presente ordenanza.*



## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehenengoa. Ordenantza hau indarrean jarriko da, testu osoa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hamabost lanegunetako epea iragan denean.

Bigarrena. Alkatetzari berariaz baimena ematen zaio lizentziak eman ditzan eta Ordenantza hau interpretatu, argitu eta gara dezan, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legediko printzipioen arabera.

## **DISPOSICIONES FINALES**

*Primera. La presente Ordenanza entrará en vigor pasados quince día hábiles de la publicación de su texto íntegro en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.*

*Segunda. Se autoriza expresamente a la Alcaldía para el otorgamiento de licencias y para interpretar, aclarar y desarrollar la presente Ordenanza, conforme a los principios recogidos en la vigente legislación sobre procedimiento administrativo común.*